

Jakin169

azaroa-abendua
2008



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

GAI NAGUSIA Euskal kultura 2008

11

ALBERTO BARANDIARAN
PANTXOA ETCHEGOIN
PATXI GAZTELUMENDI
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
LAURA MINTEGI
FITO RODRIGUEZ
ALLANDE SOKARROS
ANDRES URRUTIA
EGUZKI URTEAGA
IÑAKI ZABALETA URKIOLA

GAIAK

85

Bologna prozesatzen
PATXI SALABERRI MUÑOZA

© Jakin

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipar bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jakingunea.com
www.jakingunea.com

2008ko PREZIOAK

| BARRUAN | HARPIDEDUNA | EZ HARPIDEDUNA |
|-------------|-------------|----------------|
| Harpidetza | 50 € | — |
| Ale arrunta | 8,30 € | 10,50 € |
| KANPOAN | | |
| Harpidetza | 55 € | — |
| Ale arrunta | 9,15 € | 12,40 € |

SUMMARY



BASQUE CULTURE 2008

Eleven authors —professionals from the world of Basque culture— provide us with a critical commentary of the cultural events that have taken place during 2008. Alberto Barandiaran comments, among other subjects, on the centenary of the birth of Jorge Oteiza and the controversy surrounding the Iruña-Veleia excavations; Pantxoia Etxegoin brings us closer to cultural activity in the North Basque Country; Patxi Gaztelumendi comments on different popular initiatives and news from the world of communications; Xabier Mendiguren Bereziartu analyzes the current situation regarding linguistic policy in terms of the Basque language from the standpoint of Kontseilua; Xabier Mendiguren Elizegi reflects, among other subjects, on the possibility of alternation in the coming Basque elections; Laura Mintegi reflects on different issues related to cultural policy (museums, television) and education (university in the Basque language, linguistic models); Fito Rodriguez reminds us of the 25th anniversary of Euskal Idazleen Elkarte (Association of Basque Writers); Allande Sokarros introduces us to and analyzes different cultural activities from Zuberoa; Andres Urrutia pays homage to various leading players from Basque culture who have died this year: Henrike Knörr, Gotzon Garate, Xabier Iratzeder, Karmelo Etxenagusia and, in particular, Mikel Laboa; Eguzki Urteaga analyzes the recognition given by the French Constitution via an amendment that recognizes that they form part of French heritage; and lastly, Iñaki Zabaleta Urkiola carries out a critical analysis of the cultural policy pursued by the Basque Government. **VARIOUS AUTHORS**

PROCESSING BOLOGNA

The professor and writer Patxi Salaberri Muñoa carries out a critical analysis of the Bologna Process. According to the author, this is a process that is imposing a university model at the mercy of the interests of market lobbies and neo-liberal propositions —a practical, flexible university that meets market needs, is profitable, submissive and unfit for reflection and criticism. **PATXI SALABERRI MUÑOA**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 169. zenbakia da eta 2008. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatzea eta horiei buruz gogoeta eginez artikulu arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Hamaikaren erantzuna jaso dugu. Mila esker, beraz, guztioi.

Alberto Barandiaran kazetariak Jorge Oteizaren jaiotzaren mendeurrenaz eta Iruña-Veleia aztarnategiko aurkikuntzen gainean eraikitako polemikaz dihardu, besteak beste; Pantxo Etchegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak Ipar Euskal Herriko aurtengo hainbat kultur gertakizun aurkezten dizkigu; Patxi Gaztelumendi kazetariak kultura librearen eta komunikazioaren esparruko hainbat ekimen iruzkintzen ditu; Xabier Mendiguren Bereziartuk, Kontseiluko idazkari nagusiak, hizkuntz politikaren inguruko aurtengo auzi nagusiak aztertzen ditu; Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editoreak Euskal Autonomia Erkidegoko hurrengo hauteskundeetan gobernu-alternantziarako dagoen aukera du gogoetagai, beste batzuen artean; Laura Mintegi idazle eta irakasleak kultur politikarekin eta hezkuntzarekin lotutako zenbait gai buruz (museoak, telebista, euskal unibertsitatea, hezkuntza ereduak) egiten du gogoeta; Fito Rodriguez Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak elkarte horren sorreraren 25. urteurrena dakarkigu gogora; Allande Sokarros kazetariak Zuberoko euskalgintza eta kulturgintzan jartzen du arreta; Andres Urrutia notario eta euskaltzainburuak urtean zehar hil diren euskal kulturaren esparruko hainbat lagun omentzen ditu: Henrike Knörr, Gotzon Garate, Xabier Iratzeder, Karmelo Etxenagusia eta, bereziki, Mikel Laboa; Eguzki Urteaga soziologoak frantses Konstituzioak, eskualde hizkuntzak Frantziako ondarearen zati direla onartzen duen emendakinaren bidez, hiz-

kuntza gutxituak aintzatesteke egin duen urratsa aztertzen du; eta, azkenik, Iñaki Zabaleta Urkiola irakasleak Eusko Jaurlaritzaren kultur politikaren azterketa kritikoa osatzen du.


Bestalde, *Gaiak* sailean, Bolognako prozesuari buruzko Patxi Salaberri Muñoaren artikulua dator, gure aldizkariaren aurreko zenbakian jorratutako gai nagusiari helduz, hain zuzen ere. Artikulu honetan, Bolognako prozesuaren azterketa kritikoa egiten du egileak. Izan ere, bere ustez, kapitalak, merkatu-lobbyek eta jokamolde neoliberalak baldintzatutako unibertsitate ereduak sustatuko du prozesu horrek: haien interesetarako egoiki(tu)a, praktikoa, erabilgarria, malgua, errentagarria, erreflexio otzaneak eta kritikarako irendua. ¶

ZUZENKETA: *Jakin* 168 zenbakian, «*Iritzi bilketa*: Bolognako prozesuaren indargune eta ahulguneak» atalean, LAB sindikatuaren iritziaren egile bakar gisa Jon Ander Elorriaga ageri zen. Egileak, ordea, hiru izan ziren: Josetxo Aizpuru, Iñaki Murua eta Jon Ander Elorriaga.

G A I N A G U S I A

Euskal kultura 2008

11 ALBERTO BARANDIARAN
PANTXOA ETCHEGOIN
PATXI GAZTELUMENDI
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
LAURA MINTEGI
FITO RODRIGUEZ
ALLANDE SOKARROS
ANDRES URRUTIA
EGUZKI URTEAGA
IÑAKI ZABALETA URKIOLA



ALBERTO BARANDIARAN

Berri onak, berri txarrak

Helena Tabernaren *Berri ona* filma estreinatu zen egunean bertan, hainbat komunikabidetako webguneetan mezu sorta harrigarria agertzen hasi zen. Tonuagatik, harrigarria. 36ko gerrari buruz beste film bat, puaf. Ez ote zegoen gai gehiago, beti atzera begira, beti obsesio horien inguruan; ez al ziren konturatzen guk beste zerbait nahi dugula, inor ez dela film horiek ikustera joaten, aski dela. Anonimotasuna nagusi, noski. Webguneetako egitura parte hartzaileek hori dute, onerako eta txarrerako. Baina, hala eta guztiz ere, idazteko eragatik, jende gaztearen mezuak iruditu zitzaizkidan.

Berri ona filma —izen hori du *La buena nueva*-ren euskarazko bertsioak— ikusi berria nuen, eta minbera nintzen, nonbait. Helena Tabernari elkarrizketa egin nion egunean, mikrofonoa itxita aipatu nion ez nekiela oso ondo filma nola baloratu. Hurbil egin zitzaidala, oso, baina hori erraza zela, istorioa oso ondo ezagutzen nuelako, eta ingurua ere etxeko egiten zitzaidalako. Ezin arrotz sentitu Beriain, Aralar, Urbasa, tren geltokia, elizako bankuetan belauniko ageri ziren aurpegiak, Marino Aierraren pertsonaia. Baina hurbiltasun hori filma bera epaitzeko langa emozional handi samarra zela aitortu nion.

Ez nion esan eszenak, behin baino gehiagotan, aldez aurretik iragarrita iruditu zitzaizkidala, alegia kontakizun osoan zehar ustekabe gutxi topatu nituela; ez nion esan pertsonaiaren bat edo beste kitsch samarra egin zitzaidala, eta istorioa bera, laua. Ikuslearen interpretaziorako leku gutxi utzi zuela. Mezua argiegia zela, zuzendariak eskutik heldu

eta berak nahi zuen malkarretik eraman bagintu bezala. Ez nion esan historia liburuetatik isuritako filma zela pentsatu nuela, eta dokumentazio lan zorrotzaren ondorioz, eta, seguru asko, aspaldian idatzitako gidoi bati fidel-fidel izan nahiagatik, emozioa lausotuta begitandu zitzaidala. Historiak istorioa jan zuela.

Ez nion esan, ikusi nuen unean ez nuelako horrela sentitu. Fusilatutakoen hilobiaren aurrean apaiz gazteak emandako mezaren irudia, atzean emakume saldoa, ederregia zen.

Baina sarean azkar asko zabaldu ziren mezu bat-bateko horiek harritu egin ninduten. Filma ikusi gabeko kritikak ziren ia denak, estreinaldiaren aurrean botatako erantzun lotsabakoak. Eta behin baino gehiagotan asaldatu nauen galdera egin nion nire buruari: egia ote da 36ko gerra gai higarria, aspergarria, astuna dela?

Hainbatendako bai, bistan da. Ez ezkutatzeko gogoia dute-lako, edo gertatu zenarekin ados daudelako. Ez derrigorrez, behintzat. Baina gazte askoren ustez, 36ko gerra karlistaldiak bezain urrun dago, beste garai bateko gertakariak dira. Protagonistak, ezezagunak ez ezik, arrotzak zaizkie. Frankistenak, eta errepublikazaleenak, eta garaiko abertzaleenak, gaur egungo kezkekin bat ez datozen arrazoiak dira. Historiak ez, istorio errealak nahi dituzte. Hitz egin ezazue gaurko arazoez, esaten zuten.

Nago erreazio hori memoriaren barne mekanismo konplexuekin lotuta dagoela. Erreferentzia zuzenik izan ezean, gertakariak eta istorioak historia bilakatzen dira, hau da, iragana. Gure buruan jarraitzen duten bitartean, harreman gutxienez baten bidez hariak hor irauten duen bitartean, memoria bizia dira. Hori da gaur egun 36ko gerraren tragediarekin dagoen arriskua. Hariak hautsi eta, azkenean, historia liburuetatik gai bilakatzea. Horregatik da horren garrantzitsua bilketa lehenbailehen egitea. Hamar urte barru beranduegi izan daiteke.

Baina eztabaidaren beraren erdian sormenari buruzko gogoeta ere badago. Ez da gai berria, inguru eta garai guztie-

tan eztabaidatu da norendako kontatzen diren istorioak. Eta garbi dago tentazioa indartsua dela: jendearen interesekoak diren gaiak jorra ditzagun. Horregatik, tentazioa handia delako, estimatzekoak dira barruko kezketatik sortutako istorioak konpartitzen ahalegintzen diren sortzaileak. Obsesio txikiak askatu beste obsesiorik ez dutenak. Horien ahalegina baita, hutsak huts eta emaitzak emaitza, irauten duena.

Katedradunen beldurra

Arabako Diputazioaren ikerketa batzordearen emaitzak gorabehera, Iruña Veleiako aurkikuntzen gainean eraikitzen utzi duten polemikak ondorio larriak izango ditu epe luzera.

Hasteko eta behin, zalantzan jarri da profesional askoren lana. Duela bi urte arte, Eliseo Gilen taldearen zorroztasuna inork ez zuen eztabaidatzen, nahiz eta urte asko eraman Iruña Okako aztarnategian beharrean. Orain baieztatu da industetak gaizki egin direla, jaso beharrekoak ez omen direlako behar bezala jaso. Ezta Europako laborategiei eskatutako txosten eta azterlanak ere ez bide dira ondo egin. Arkeologo, kimikari eta historialarien gaitasuna kolokan jarri da publikoki.

Profesionalen izen ona ez ezik, Euskal Herriko aztarnategi garrantzitsuenaren irudia ere nabarmen kaltetuta geratu da. Veleian aurkitutakoa, orain, axolagabekerien bilduma omen da. Alferrik da gogoratzea hamarkada askotako lanaren emaitza dela Veleia, hor topatu den ondarea inguruko garrantzitsuenak dela, eta urte askotarako lana dagoela oraindik. Arduradun berriei kostako zaie egoerari buelta ematea.

Euskal hizkuntzalaritza ere ez da afera honetatik onik aterako. Prestigio aldetik, lan handia egin beharko dute zipriztinak erabat garbitzeko, batzuk ahaleginduko direlako, ahaleginduko direnez, euskal filologiaren eta euskararen historiaren teoria guztien aurka.

Kaltea, garbi dago, egina dago, baina uste dut askok ez dutela egoera ondo ulertu. Ondorio makurrak biderkatu egin direla zenbait jarrera direla eta.

Polemika mediatikoa izan da, guztiz. Ez komunikabideek sortu dutelako, ezpada komunikabideetan bakarrik eman delako. Aurkikuntzen berri eman zutenetik bi urte terdi joan dira, baina Iruña Veleiako aztarnategiko arduradunak bitan bakarrik agertu dira publikoki hitz egiteko. Lehen aldian, aurreneko zurrumurruek baieztatzeko. Handik urtebetera-edo, aurkitutakoaren benetakotasuna baieztatzeko. Bi agerraldion artean, elkarrizketak, lapurtutako adierazpenak, iritziak, denetarik agertu da komunikabideetan, Interneteko foroetan, kongresu zein batzar aunitzetan. Iritzi anabasa, tartean adituak eta zaleak, aldekoak zein kontrakoak, jakingurak eta eszeptiko kronikoak.

Katedradunek, bitartean, zientziak behar duen pazientzia eta lan isila aldarrikatu dute, baina ez dira ohartu mututasunaren bidez susmoak baino ez dituztela indartu. Ez dira ohartu blogen garaian, gardentasuna asko baloratzen dela, eta gauzak gertatzen ziren garaian, eta gertatzen zirenen arabera azaltzeagatik, horregatik ez zela inola ere zorroztasuna galduko. Ez dute ulertu sekretuari eutsi nahi izatea kalterako izan dela. Sekretuari eustea... noiz eta notizia bat gordezteak notizia bera susmagarri bilakatzen duen garaiotan.

Ez dute ulertu, Lazarragaren eskuizkribuaren berehalako —eta zorioneko— sareratzearen garaian, askoz logikoagoa eta onuragarriagoa zela datu guztiak, poliki-poliki, ezagutzera ematea. Datu horiek aztertu eta frogatu nahi zituenak, berdin-berdin aztertuko zituen, beharbada lasaiago.

Bestela jokatzera, akaso ez zen horrela zabalduko, lainoaren gisara, azkenean zabaldu den inpresioa: hainbeste denbora, zer eta hasierako susmo berdinak baieztatzeko?

Norbaiti ahaztu zitzaion gardentasunak zerbait ezkutatu nahi duenari baino ez diola kalterik egiten.

Hamaika Oteiza

Oteizaren mendeurren honetan, zerbait garbi geratu da: Oteiza bera sailkatzeko ezintasuna. Bakoitza nola hurbiltzen

den, horren arabera izango da ikuspegia. Horregatik, hamaika Oteiza daudela esan daiteke. Hamaika lagun izan direlako ezagutu nahi horretan aberastu direnak. Bakoitzak bere irudia duelako, begi ninian ondo finkatuta.

Baina entzun diren iritzi horien artean argigarrietakoa, Jose Antonio Sistiagarena izan da. Oteiza hurbiletik ezagutu zuenaren hitza delako, eta bera ere artista delako; Orioko eskultoreak izan zituen kezka berdina izan zituelako, eta kezka horiek elkarrekin banatu zituztelako behin baino gehiagotan; biek eskutik helduta ibili zituztelako bide asko.

Sistiagak esan du mitifikatu egin dela 60ko eta 70eko urteetako ekimen asko eta asko. Mitifikatu egin dela, batez ere, Oteizaren parte hartzea. Oteizaren meritua izan zela askoren buruan zerabiltzaten ideiak paperean eta hitzetan jarri izana. Hau da, denen ideiak hartzen eta kudeatzen miasua zela. Sistiaga euskal artisten eskolak antolatzeke ahaleginei buruz ari zen noski. Gogo eta tema hori funtsezkoa izan zen Oteizaren bizitzan, eskultura utzi eta ondorengo urteetan, baina gutxien ikertu denetako bat da.

Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan, Araban, Lapurdin, artea gizartera hurbiltzeko, eta gizartea arteari buruz erakartzeko egitasmoak amestu zituen Oteizak, hamaika aldiz. Denek errekarra jo zuten, proiektu haien atzean ez zegoelako hezurduririk. Ez zegoelako bururaino eramateko egiturarik. Ez zegoelako bizkarrezurrik. Aparra bezala harrotu eta gero desegiten ziren burutazioak ziren.

Sendoagoa, askoz sendoagoa da haren eskultura eta arkitektura: benetako sortzaile aitzindari baten proiektu artistiko interesgarri eta harrigarria. Eta barnerakoiagoa, askoz intimoagoa, haren poesia.

Pedro Manterolak irakurri zuen, mendeurrena zela-eta Iruñean antolatu zen kongresuaren amaierako hitzaldian, Oteizaren epitafioa izan zitekeena. Artistaren testamentua edo. *«Ez ukitu nire gorpua, zaborretako arratoi horiek. Zuen artean izan naiz, ez dut inor maitatu. Zerura begira bizi izan naiz, ez dut ezer ikusi. Ez dut igo nahi. Ez dut hemen behean esnatu nahi».*¶



PANTXOA ETCHEGOIN

Iparraldea: euskal kulturaren loraldia

Iparraldean, euskal kultura bizi-bizian izan da aurten ere, eta saiatuko naiz bizpahiru gaien zerrendatzen *Jakin*-entzat. Lehenik, aipatuko ditut sorkuntza zenbait, nola dantza, hala musika eta antzerki alorretan, ondotik Hegoaldearekiko harremanak, eta urrentzeko, kultura trukaketak.

Beti zerbait iragaiten da Iparraldean euskal kultura munduan! Hori entzuten dut maiz hona datozenengandik. Bai, uste dut arrazoi dutela, zeren eta asteburu guti da, non ez den gertakaririk gure herri eta hirietan. Hemen dantza ikusgarria, hor kontzertua, han bertso saioa, hementxe mintzaldia, hortxe erakusketa, eta hantxe antzerkia, eta nik dakit zer oraino... eta zerrenda ez da horretan bururatua!

Eiki, eskaintza zabala bada Euskal Herrian, eta euskal kulturak toki garrantzitsua dauka. Aurtengo urtean berean, ikusgarri berri ugari izan da alor guzietan eta hori zinez pozgarria da, kulturaren bizitasunak baitakar gure euskararen giltza eta biharko esperantza.

Euskal dantza hartzen bada, adibidez, ekimen aberatsak eramanak izan dira, edo artista amateurren eskutik, edo profesionalekin, eta maiz biak uztarturik. Oro har, uzta ederak ikusi ditugu.

Biga behar banitu lehenetsi, hor ezar nitzake *Mihimena* eta *Bodarin* ikusgarriak, biak estilo ezberdinetakoak, baina bata bestea bezain atsegingarria.

Baigorriko Arrola dantza taldeak du *Mihimena* ikusgarria antolatu, hain zuzen euskal dantzaren eta mahastiaren arteko loturaren egiteko. Taula gainean, ikus zitezkeen egunero-

ko mahastizaintzako ohidurak, kantu, bertso, bideo, eszena jokoen bitartez, dantza zelarik ororen zubi eta buru.

Ikusgarri horren apailatzeko, belaunaldi ezberdinetako ehun parte hartzaile baino gehiago aritu da, hilabeteak eta hilabeteak lanean, jakinduriaren transmisioa agertuz haurren, gizonen eta emazteen artean.

Publikoaren loria jokalarien nahikundearen heinekoa izan da. Euskal Herriko historia eder bat kontatu digute; egiazko besta herritarra izan da, non ere emozioa eta partekatzearen zoriona begi-bistan genituen. Sorkuntza eredu eder horrek baieztatzen du euskal kultura zimendu dela, belaunaldien arteko loturaren egiteko, egitasmo komun baten inguruan.

Bigarren gertakaria *Bodarin* izenekoa da, Anaigazteak konpainiak alhan ezarri duena.

Anaigazteak konpainiak Iparraldeko dantzariak biltzen ditu eta Arbona, Basusarri, Ezpeleta, Gabadi, Luhuso, Urruña edo Donibane Lohizuneko gazteria federatzen du. Dantzari horiek jatorrien atxikitzeke helburua daukate, baina denbora berean euskal dantzaren ondarea aberastu nahi dute, euskal dantza eta ohidurekin batera, bertze tokietako dantzak eta musikak uztartuz.

Bodarin ikusgarrian, ikus daitezke Lapurdiko inauterien inguruko dantzak, flamenko dantzarekin zeingehiagokak, eta oroz gainetik taula gainean badira efektu bereziak, bideoak, soinu grabaketa bereziak, emanaldiari estetika ikusgarriagoa eta modernoa eskaintzen diotenak.

Gaurko koreografia bat da, munduari eta berrikuntzari irekia, sustraiak ahortzi gabe. Hamar bat tokitan eskainia izan da *Bodarin* obra, bai Euskal Herrian, bai eta ere Parisen bi aldiz.

Bururatzeko dantzarekin, ez ditut ere ahortzi nahi bertze sorkuntza zenbait, hala nola *Orreaga* ikusgarri erraldoia, Pier Pol Berzaitzen idazlanean oinarriturik, Baionako zezen-plazan eskainia izan dena uda honetan, sei mila presunen aitzinean. Halaber, Zuberoan, jendeak beti prest dira kantuarren, dantzaren eta musikaren inguruko emanaldieta-

ra joateko oste handian. Hori gertatu da urrian plazaratu duten *Aidez Aire* deitu ikusgarriarekin.

Euskal antzerkiaren sasoi ederra

2008an, bi obra aipa nitzake oroz gainetik: *Loreak mendian, ondarkinak lurpean eta bideak gainean*, Amikuzeko Kitzikatza/n antzerki taldearen eskutik. Mattin Irigoien idazlea, ironiaz eta garraski, gure ingurumenaren eta planetaren orekaz mintzo zaigu, bakoitzaren baitan gogoeta sorraraziz hain garrantzitsua den gai horren inguruan.

Antzerki horrek arrakasta lortu du, bai gaiari doakionez, bai antzerkilarien trebetasunari esker.

Bigarrena, *Ibañeta* antzerki obra da.

Haize Berri kultur etxeak euskarazko antzerki idazlan eta ekoizpenak garatzeko duen xedean sartzen da *Ibañeta* antzerkia. Piarres Larzabalek 1968an idatzi zuen antzerkiaren muntatzea bultzatu du, Iparraldeko hamabost bat jokalarirekin. Urte honetan, Piarres Larzabalen heriotzaren hogei-garren urtemuga da. Idazle horrek eragin handia ukan du euskal antzerkiaren historian eta eraberritzean.

Ibañeta-k kontatzen du nola Nafarroa Karlomagnoaren tropek okupatzen duten. Batzuek okupatzaileari aurre egiten diote, besteek harekin kolaboratzen. 778 urteko gertakariak. Orreagan euskaldunen garaipenaren data hain justu, legendari oihartzun eginez, Piarres Larzabal apezak idatzi zuen frankismoaren kontrako euskaldunen erresistentzia. Berrogei urte berantago, gaurkotasuna badu antzerki honen, euskaldunek ez baitugu oraino gure herriarentzat atarabide sendorik atzeman.

Ander Lipus izan da taula zuzendaria eta horrek eman dio obrari freskotasuna, eta jokalaria oso finki aritu dira, antzerki herritar hunkigarri baten eskaintzeko.

Bi hitz erranen ditut ere haur antzerkiaz, urte honetan preziatu ahal ukan baititugu besteak beste bi obra eder, non antzerkiak, olerkiak, dantzak eta musikak bat egiten duten:

alde batetik, *Lodikroko*, Amaia Hennebutte-Millard idazleak ondu obra; eta, bestetik, *Zoaz egan errari*, Le Théâtre du Rivage antzerki taldearen eskutik.

Iparraldea Bertan

Hori da zazpi urte honetan Euskal Kultur Erakundeak bideratzen duen Iparraldeko kulturaren inguruko hitzorduaren izena, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunearekin batera.

Martxo inguruan apailatzen dugun ziklo horrek helburu xumea dauka: Iparraldeko artisten hobeki ezagutaraztea Hegoaldean, eta harreman berrien sortzea bai artisten, bai publikoaren artean. Eta ez da ekitaldi bakarra! Joanago eta gehiago saiatzeko gara Hegoaldean sare berrien edireten, Ipar eta Hegoaldeko kultura uzten zabaltzeko. Hala nola, kultura ekitaldiak alhan ezarri ditugu Andoainen, Oiartzunen, Gernikan, eta nolaz ez Getxon, hor bi urteetarik baitago festibal berezi bat, *Iparra galdu gabe* deitua, Getxoko Udalak antolatzen duena gurekin batera.

Aipatu behar dut ere gure erakusketa multimedia *Batekmilla-Euskal Munduak*, Hegoaldeko lau hiri nagusietarik iragan dena (Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Iruñea), gehi Getxo, urri amaieran. Arrakasta ederra lortu du, nola erakusketak berak, hala inguruan antolatu ditugun ikuskizun eta mintzaldiek.

Azkenik, derragun Azpeitiako XXVI. antzerki topaketan, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Kultur Erakundeak daukaten hitzarmenari dagokiola, egun berezi bat antolatu dugula, bereziki profesionalentzat, baina ez bakarrik. Hor Iparraldeko hiru antzerki talde aritu dira, eta ondotik Ipar eta Hegoaldeko programatzaileak elkartu dira, egungo euskal antzerkiaren eskaintzez, aukerez, bai eta ere adierazpen horren arazoez eztabaidatzeko, mugaz gaindiko harremanak nola hobetu daitezkeen aztertzeko, eta abar.

Lehen ekimen horrek hogeita hamar bat kultura ardura-dun eta antzerkilari bildu ditu, eta ondoko urteetan ere beste horrelako hitzordua antolatua izanen da.

Zubiak eraiki ditzagun

Aspaldikoa da Euskal Kultur Erakundeak lan egiten duela euskal kulturaren ezagutarazteko kanpoan, eta kultura trukaketak garatzeko, horrelakoetan batak bestea hazten baitu.

Lehenik, aipatu behar dut joan den martxoko ekimen bat, Borgoina aldeko Dijon hiriko Denis Diderot Unibertsitateko gazteek eraman dutena, *Cyclopédies* elkarte osatuz.

2008ko martxoan, elkarte horrek Euskal Herria gomiatu du *Baskarad* izendatu duten festibalean. Euskal Kultur Erakundearen proiektuaren partaide izan da eta Euskal Herri oso-tik hogeita hamar talde baino gehiago —Ipar eta Hegoaldekoak— gomiatua izan da, nola antzerkia, ipuina, musika, kantua, zinema, eta literatura alorretakoak; biziki egitarau aberatsa oro har.

Halaber, Vincent Perraud eta Angela Mejias artistek Borgoinako eta Euskal Herriko paisaien eta gizartearen argazkiak hartu dituzte, *Begi Bi* izeneko erakusketa batean erakutsiak izan direnak, bai Dijon hirian, bai Hendaian eta Hondarribian.

Bestalde, kantuaren alorrean, Euskal Kultur Erakundeak aspaldidanik Georgiako polifoniei eman die leku garrantzitsua, urteetan hango talde batzuk hona etorri baitira, eta hemengo artistak Kaukasiako eskualde horietara joan.

Hala nola, duela bi urte, Céline Mounole, Maddi Oiherart, Kattalin Indaburu eta Philippe Albor euskal kantari eta musikariek osatu zuten Iruska taldeak parte hartu zuen Ohizko Polifonien Nazioarteko Topagune batean, Tbilisi eta Georgiako bertze eskualdeetan kontzertuak eskainiz.

Azaro hastapenean, Mzetamze (Eguzkien eguzkia) emazte kantari talde zoragarria errezibitu dugu Euskal Herrian, hainbat kontzertu eta ekitaldirentzat, Azkainen, Baionan, Donibane Lohizunen, Hondarribian eta Heletan.

Kontzertuak emateaz gain, egonaldi artistiko bat egin du talde horrek Heletan bi egunez, Itsasoa deitzen den ikusgarri-gelan.

Hor, Iruska taldeko hiru kantariak berenganatu dute Georgian polifonien berezitasuna; halaber, Mzetamze taldeak euskal errepertorioa landu du kari horretara.

Talde horretaz oroitzapen zoragarria atxikiko dugu gure baitan, kantuen edertasunarekin batera baitzen ere bihotzaren mintzoa, emazte horiek helarazi digutena; eta nonbait beren herrian bizi duten gerlaren ondoko aztarnak bizi-bizian baldin bazeuden ere oraino, zorionsu joan dira Euskal Herritik. Badugu denek besteengandik zer ikastekorik!

Ez nuke urrendu nahi ene idazkia, Iparraldeko lehen Bertso Txapelketa aipatu gabe.

Hamasei bertsolarik parte hartu dute, eta hiru kanporaketa ederren ondotik, finala Donibane Lohizuneko Jai Alaian iragan da, mila bostehun bat bertsozaleen aitzinean.

Zortzi bertsolarik lortu dute finala horretan parte hartzeko aukera. Oro har, bertso saio luze bezain emankorra izan da.

Ernest Alkat duela guti zendu den bertsolaria ere denen gogoan zegoen eta Mixel Aire urepeldarrak bertso hunkigarria eskaini dio saio hastapenean.

Horrelako ekitaldiek gogo-bihotzak indarberritzen dituzte, eta Iparraldean bertsolaritza zabaltzen ari da orain hiru probintzietara, gazteenganatzen, eta erratearen beharrik ez, gure hizkuntzaren egoera txarra izan arren, euskarari altxor ezinago hobea eskaintzen diola. Apurka-apurka bertso eskolak hedatzen ari dira Iparraldean eta uzta ederrik ekartzen dute, gaur eta biharko...

Amets Arzallus hendaiarrak ukan du txapela, baina beste bertsolariak ere maila ona lortu dute.

Iparraldeko euskal kultura orenaren arabera da: beti aitzina doa.¶



PATXI GAZTELUMENDI

Baga

Zazpigarren alaba esaten dio kantuak Arabari. Eta euskal kulturari erreparatuta, artikulua hasierara ekartzea otu zait niri. Ez naiz Lazarragari buruz arituko, ez ditut Veleia-ko kontuak haizeratuko, ez dut Henrike Knörr aipatuko. Atzera begira barik, aurrera jotzeko gogoz eta ilusioz dauden gainean arituko naiz. 2008an ekitaldi deigarririk egon bada, *Piztu Gasteiz* ekimenarena izan da. Gasteizen Hala Bedi irriaren eta bertako gaztetxearen urteurrenak ospatu dituzte, 25 eta 20 hurrenez hurren. Bi mugimenduak elkartu, eta urte hasieratik, elkarrekin ospatu dituzte ekitaldi zenbait. Hitzaldiak, kontzertuak, komunikazioari buruzko topaketak, jaiak, inauterietako karroza... denetarik. Baina, urriaren 11n Gasteizko alde zaharrean antolatu zutenak benetan piztu zuen Arabako hiriburua. Euskal Herri osoko hamaika txokotatik hurbildutako jendeak, gainera, sostengua eskainiz eta begirunez ikusi zituen Gasteizko ekimenok.

Izan ere, Euskal Herriko irratia libreei begira, datorkien lege aldetiko etorkizun ilunaren aurrean, irratia piztu eta Hala Bedi entzutea, haize bufada atsegina da gorputzean. Iru-dimena, hizkuntzak, musika, mezu zuzenak, mezu alaiak, gogoeta eta parte-hartzea uztartzen ditu Arabako irratirik libreenak. Asanbladan oinarritutako hedabide gutxi izango da dagoeneko gurean, baina dirautenak ondo baino hobeto ari dira betetzen bere funtzioa. Funtzio komunikatiboa, soziala, ideologikoa, kulturala. Eta hori, lagunok, asko baino gehiago da bizi dugun pasarte historiko honetan. Gasteizen ez ezik, Araba osoan entzuten ahal da FM bidez, eta lantzean

behin Bizkaia eta Nafarroako uhinetatik ere entzuterik badago. Horrez gain, Euskal Herri osoan —ulertu bedi modu berean mundu osoan— entzuteko eta jarraitzeko aukera dugu halabedi.org webgunetik.

Urriaren 11koa ez zen izan egun bateko ekitaldi soil bat. Ez zen izan ospakizun bat, arratsaldean egiten diren txokolataden antzekoa, ez zen nostalgiari tarte egiteko saioa izan. Herri mugimenduak, musika eta kultur adierazpen ezberdinak, kalea eta auzokideak, adin guztietako pertsonak batzeko ahalegina izan zen. Ahalegina eta emaitza, han ikusita koari erreparatuz gero. Eta euskal kulturagintzatik, talaiak haueetatik gutxitan erreparatzen zaie horrelako ekimen eta mugimenduei. Gaztetxe berba gutxi aurkituko duzu *Jakin*-eko orrietan. Bada, azken hamarkada hauetan, kulturagintza herritarren gune dira etxeok. Gazteek antolatuta, kudeatuta, aurrera aterata, nazioarteko eredu dira okupatu eta eskuratutako lokalok.

Piztu Gasteiz esan genuen, eta oraindik ez da amatatu garrara. Badirau, beste horrenbeste urtetarako. Esperientzia, belaunaldi berriak, gogoeta historikoa, alde zaharraren biziberritzea, kultura ezberdinetako —Gasteizen bereziki— lagunen arteko auzolana... Askotarako ematen du. Euskal kultura egin, osatu, erosi, sortu eta maite dugunontzat, eredu garri izan daitekeen adibidea. Kalea, beraz, kulturaren espazio publiko Gasteizen, Euskal Herrian.

Biga

Sareari buruz ere beharko dugu mintza. Teknologia berriek, informazioaren aroak zelan eragiten duen gure kulturaren. Zein kezka dagoen kulturaren inguruan alor estrategiko honetan. Sareak eragiten digu, dudarik gabe, baina guk sarean? Euskaldunona ba al da komunitate bat, aro moderno globalizatu honetan? Euskarak hizkuntza moduan, ze leku du Interneten? Kezka horiek ba al dute oihartzunik gure arteko solasaldietan?

Bada, bagara, badira horretaz kezkatzen direnak ere. Sarean lanean ari den jende ikaragarri bat. Euskal Herrian ez ezik, munduko beste hamaika bazter, unibertsitate eta eremu ezberdinetan. Euskaldunon sare anitz bat ere osatzen ari da. Ezberdina dena, arautu barik dagoena, baina apala, horizontala, parte-hartzailea eta gogo eta ilusio handiarekin ari dena.

Basquecamp irakurri eta zer pentsatuko dute *Jakin* aldizkariaren irakurleek? Ingelesa ikasteko euskal udalekuak etorriko zaizkie gogora beharbada, edo auskalo zer. Tira, kontua da munduan zehar barcamp izeneko deskonferentziak ari direla hedatzen barra-barra. Gai bat hartu, sarean zabaldu, wiki bat sortu eta parte-hartze zuzena sustatuz, jendeak gaiak proposatuz, hizlariak izendatu eta deskonferentziak direla teknologia berrien alorrean bogako topaguneak. Kongresuak antolatzen urteak joan urteak etorri, denboraren joanean ia eskusiboki horretara dedikatzen denik badagoen arren, antolaketa modu berriek, sareak eta jendearen parte-hartzea bultzatzen duten garaiok hori ekarri dute. Bisita ezazue barcamp.org, bilatu wikipedian barcamp —emaitzak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez...—. Azken bi urteotan barcamp ugari egiten ari da, astero-astero munduko bazter ezberdinetan. Teknologiar buruz, edozein gai. Izan daitezke blogak, mugikorretarako aplikazioak, programa konkretuak, mapak, bilatzaileak edo itzultzaile automatikoak. Kontua da, jendea batu, gaiak sailkatu eta bakoitzak bere hitzalditxo ematen duela, guztien artean adostutako gai-zerrenda eta denbora tartetean. Mundu osoko fenomeno da hau.

Kontua da, Euskal Herrian ere izan dugula horrelakorik egiteko ausardia, gogo eta esperientzia. Urte bakarrean bi barcamp egin dira gurean. Bizkaiko Larrabetzun egin zen lehenengoa ekainaren 7an eta Lapurdiko Bidarten bigarren ekitaldi bat urriaren 18an. Biak ala biak basquecamp izenburupean. Teknologia berriei buruz, euskaraz mintzatzeko parada izan dira ekitaldiok. Alor honetan ari diren garatzaileak, erabiltzaileak, software egileak, euskaratzaileak batu eta ber-

baz hasi eta lanean jartzekoa. Wifi konexioak baliatuta, ordenadoreak aldean eroanda, bestelako deskonferentziak antolatuz. barcamp.org/basquecamp gunean daude berba egindako gaiak, jorratutako ideiak, jasotako erantzuna eta izandako oihartzuna. Sareak hori du, parte-hartzea bultzatzeaz gain, guztia oso ikusgarri egiten duela. Guztien artean sortutakoak lan gutxiago ematen du, eta gainera emaitza hobea izaten da. Beste lezio bat kulturagintzarako. Sarea ere kulturarako espazio irekia da. Baita Euskal Herrian ere.

Higa

Eta ez dugu musika aipatu barik utziko. Negua hurbiltzearekin bolumena igo delako. Durangoko azokaren bezperatan albisteak atsekabe bilakatu direlako. Mikel Laboaren heriotza batetik, eta Jaurlaritzak estrategikotzat jo duen Junkeraren egitasmoari 702.000 euroko diru-laguntza erabakitzea bestetik. Kantu herrikoiak euskaldun guztion kantutegira ekartzen maisu izan dugu Mikel Laboa. Zer ez den idatzi eta esan berari buruz, abenduaren lehen bere heriotzaren berriak esnatu gintuenetik. Kantuak entzuten darraigu guztiok, zahar eta gazte, ume eta heldu izan gara, gara eta izango kantuen jarraitzaile. Izarren hautsari denok jarri izan diogu ahotsa, edo Baga Biga Higa... Zenbatezina litzateke. Lekeitioak abangoardiako ikono sonoroak dira musika maila duenarentzat. Rock taldeek 90eko hamarkadaren hasieran egindako *Txerokee* omenaldi-diskoa rockaren eta kantagintza berriaren bidegurutzearen ikur da orain. Bizi izan dugu Laboa, eta aurrerantzean bere kantutegia abesten jarraituko dugu. Gogoratzeko modua. Sarean jarraitu gura baduzue, izarrenahotsa.com sortu da, Mikel Laboaren kantuztiak dominio publikoan jartzeko ekimena.

Heriotza bera baino tristeagoa izan da Jaurlaritzako bi sailen erabakia. Zaila zaigu ulertzea Kultura sailak eta Etxebizitza sailak ebatzitakoa. Broma latza litzateke esatea *Etxea* lana bultzatu duela Madrazok. Baserria egingo lukeen mo-

duan Gonzalo Sainz de Samaniegok, edo Egurra Balzak. Kontua da, Junkerak munduan zehar egin beharreko zenbait lan, multinazional handiekin plazaratu beharreko diskoak estrategikotzat jo dituela Jaurlaritzak. Eta to, 702.000 euro horretarako. Zur eta lur geratu dira gainontzeko musikariak. Kulturgileak oro. Guggenheim efektuaren gerizpean bizi gara, eta diruz estaltzen dira gure iluntasunak. Euskal musika oro har bultzatzeko programa bat badu Gasteizko gobernuak, Euskadiko soinuak deritzona. Egitasmo horren aurrekontua hirukoizten du musikari bakarrari emandako laguntzak. Aztoratuta musikariak, sinadurak biltzeari ekin zioten, eta ia 500 batu zituzten arrapaladan. Eta sektoreko enpresek ere beren kexa agertu zuten. Sinadurak, kronikak, iritziak eta beste biltzen dira musikariek sortutako artxibo digitalean: musika.mundua.com. Gobernuko indarrak baino ez dira publikoki agertu erabakiaren alde. Eta Kultura sailak berak nahiko afera gatazkatsuak ditu uneotan esku artean, Guggenheim kasua, Getariako desfalkoa, Veleiako aurkikuntzak, futbolariekin kalapita. Aztoratzeko moduan ibiliko da Miren Azkarate anderea. Eta tartean bere bozerra maile den Koldo Ordozgoitik, publikoki hanka sartzen du, Laboaren *Gernika zuzenean 2* diskoa ere diru-laguntza publikoarekin egin zela esanez, eta gerora jakin dugu Mikel Laboak berak patrikatik ordaindu zuela Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin grabatutako diskoa. Hori ere entzun behar. Negu beltzean. Euskal kultura, ejem. Ez da ejenplurik onena. Baina tira. Hau ere Euskal Herria da.¶



XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Kontseiluak 2008 urtean mugarri bat jarri du. 10 urte bete ditugunez atzera begiratu dugu, egindako bidea perspektibaz ikusteko. Aldi berean, egungo egoeraren azterketa egin dugu aurrera begira nondik jarraitu behar dugun definitzeko. Urte oparoa izan da barrura begira, erradiografia egin baitiogu geure lanari.

Orain dela 10 urte abiatu genuen ‘bai euskarari’ leloarekin. Gaur egun, euskararen egoerak harago joatea behar du. Hortaz, ‘euskaraz bai’ aurrerapausoa emateko garaia da. Hala jakinarazi genuen 2007ko abenduan Kontseilua osatzen duten Euskararen Gizarte Erakundeekin egindako Batzar Ez Ohikoan.

‘Euskaraz bai’, bizikidetza egokirako bidea

Urteurrenaren bueltan, 2008ko udazkenean Kontseiluak erabili behar duen mezuaren ideia nagusia izan litekeena definitzen saiatu gara.

Kontseiluak sortu eta abiatutako lehen kanpaina *Bai euskarari* leloarekin abiatu zuen, 20 urte lehenago egindako kanpaina eta erabilitako leloa ikur hartuta. Gainera, 10 urte luzez, Kontseiluaren ikur nagusia izan da lelo hori ondorengo ekimenetan (plan estrategikoa, Bai Euskarari Ziurtagiria...). Hamar urteko ibilbidearen ondoren, *Euskaraz bai* da Kontseiluak darabilen leloa eta eman nahi duen mezua. Honetan guztian, Kontseiluaren ibilera logikoa ikus daitekeela uste dugu.

Bai Euskarari mezuaren bidez, Kontseiluak euskal gizartearen euskararen aldeko jarrera erakutsi nahi izan zuen, eta

euskal gizartea jarrera horretara bildu zuen. Lelo horrek euskararen aldeko jarrera argia erakusten du, izan daiteke euskararen alde gaudela eta kito, edo euskararen alde gaudela eta euskaraz bizi eta euskara normalizatuz joateko urratsak egiteko prest gaudela.

Aurreratutakoa kontuan izan eta normalizaziora iristeko bidea falta dela gogoan hartuta, oinarrizko ildo hauek jarraituko ditu Kontseiluak etorkizunera begira:

Euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea ezinbestekoa da. Hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenek ikastea, eta bere erabilera esparru eta eremu berrietan handitzea, ahalik eta eperik laburrenean. Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu.

Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortzea ezinbestekoa da, horrela lor baitaiteke euskararen normalizazioan urrats benetakoak egitea.

Euskara lehentasuneko hizkuntza izatea lortu behar dugu, horrela ziurta baitaiteke euskaldunen eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea.

Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan soziala bideratu behar dira, biak ere norabide berean. Erakunde instituzionalek, eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek, norbanakoek eta euskalgintzak norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua osatzen dugun eragileok euskararen eremu osoan euskaraz normaltasunez bizitzeko ari gara lanean. Etorkizunerako, euskalgintzan ari garen erakunde eta lagunok lanerako ilusioa eta grina dugula berretsi nahi dugu. Ahalegin horretan batera jarduteko gonbita luzatzen diegu jendarte-eragileei, erakundeei, eta gizarteari oro har.

Azkenik, Kontseiluak 10 urte hauetan euskara ikasi, erabili, zabaldu eta horren aldeko hautua egin duten jendarte-eragile eta pertsona guztiei zorionak eman nahi dizkie. Jada 'Euskaraz bai' esan duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie,

eta bide batez, gizarte osoa aldeketasuna adieraztetik euskarra egitera pasatzera animatu nahi du, 2009an abiatuko baita ‘euskaraz bai’ egiteko garaia. Era berean, oraindik atxikimendua egin ez dutenek eta hala egin nahi dutenek —enpresa zein norbanakoek— Kontseiluaren webgunean egin dezakete hori, hain zuzen www.kontseilua.org/euskarazbai orrian.

Euskararen egoera

Euskararen egoeraren erradiografia ere egin dugu eta euskararen normalizazioa proiektatzen ere saiatu gara. Horrek kezkatzen gaitu, orain arte bezala jarraituz gero etorkizunerako proiektzioak atzera egingo dugula esaten baitigu.

Egindako lanari esker euskal herritarren euskararen aldeko jarrerak azken hamarkadetan bilakaera baikorra izan duela ukaezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da, euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa. Baina euskararen garapena nahi baino mantsoago ari da gertatzen.

Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, handitze hori ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa.

Erabileran ere hazkundea gertatu den arren, egoera normalizatuak izango lukeen erabilera-mailaren azpitik gaude oraindik.

Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.

Abagune honetan, euskalgintzak elkarlan-jarduera aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza oparoa da euskarari emandako bultzada, ehunka gizarte-eragileren ekarpena eta instituzioetan lortutako eragite-lana.

Kontseiluak IV. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitza orokorren balorazioa eta euskararen normalizazioaren proiektzioa egin du. Euskal Herrian euskararen normalizazioaren erritmoa onartezina dela azaldu dute ordezkariak. Baiezta-pen hori frogatzeko datuen proiektzioa azaldu dute: «Iparraldean hizkuntza galbidean dago, Nafarroan erritmo honetan 834 urte beharko ditugu eta EAEn 175 urte».

Ondorioak eta etorkizunerako neurriak

Urte hauetan guztietan, herri-mugimenduak egin duen lan eskerga ongi islatzen da datuotan. Ezagutzari dagokionez, Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen lanez eta Hezkuntza Sistemaren bitartez azken 15 urteotan lortutakoa oso agerikoa da.

Erabilerari buruz zabaltzen den mezua guztiz okerra dela adierazten dute datuok. Izan ere, aukerak dituen euskaldunak oso kopuru altuetan erabiltzen du euskara. Aukera faltan dago arazoa, eta aukera horiek ez baditugu, hizkuntza politikaren desgokitasunaren adierazlea da.

Euskararen normalizazioa azkartu behar da eta horretarako honako neurri hauek hartu beharko lirateke:

- Euskararen estatusa erdarak duenarekin berdindu behar da.
- Euskaldunon hizkuntza-eskubideak babestuko dituen corpus juridikoa osatu behar da.
- Hizkuntza-politika eraginkorra abiatu behar da.
- Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar ditu. Goi mailako ikasketen eskaintza euskaldundu behar da.
- Administrazioa eta bere zerbitzuak euskaldundu behar dira. Euskaldunak kontratatzea, euskarazko zirkuituak sortzea eta euskalduntzeko epeak zehaztea dira jorratu beharreko bideak.
- Alor sozio-ekonomikoa euskalduntzeko bide eraginkorrak jarri behar dira.

- Berdin gizarteko beste alor batzuk ere: aisia, kirola, he-
dabideak, kultura, oro har...
- Diru-baliabideak, administratiboak eta giza baliabideak
nabarmen handitu behar dira.
- Helduen euskalduntzeari izaera estrategikoa aitortu be-
har zaio.

Neurri horiek hartuz gero, euskararen normalizazioak da-
gokion erritmoa hartuko du. Zeregin horretan sor litezkeen
zailtasunak gainditzeko, Kontseilua elkarlanerako prest ager-
tu da.

Behatokiak urtero jasotzen dituen hizkuntza-eskubideen
urraketek ere euskararen egoeraren larritasuna azaltzen du-
te...

Zazpigarrenez Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urteko
diagnosiaren argazkia egin eta argazki horretan oinarrituta-
ko ondorioak atera ditu. «Zazpi urtean kezka areagotuz»
esaldiarekin laburbildu ditu Behatokiko zuzendaria den
Paul Bilbaok urteko txostenaren ondorioak.

Zazpi urteotan herritarrek jakinarazi diote Behatokiari
hizkuntza-eskubideen egoera 'euskararen telefonoaren bi-
dez (www.euskararentelefonoa.com eta 902 194 332). Beha-
tokiak herritarron kexak, zorionak edo galderak jasotzen
ditu eta urteko diagnosa egiten du. Gaur Iruñean 2007ko
txostenaren edukia aurkeztu du.

2007an kudeatutako 1.230 espedienteetatik, 1.121 hizkun-
tza-eskubideen urraketak izan dira. «Hartara, inoiz baino
urraketa gehiago helarazi dizkiote herritarrek Behatokiari»,
azaldu dute. Irakurketa positiboa ere egin dute, herritarrek
gero eta kontzientzia aktiboagoa baitute hizkuntza-eskubi-
deen urraketan aurrean.

Hala eta guztiz ere, hori nahikoa ez dela azaldu dute:
«Herritarrek erakusten duten kontzientzia aktiboagoak is-
la zuzena izan beharko luke erakundeek zein administra-
zioek eskubideen bermatzeko abian jartzen dituzten meka-
nismoetan». Horren harira, Euskararen Gizarte Erakunde-
en Kontseiluak prestatutako 'Euskaraz bai' adierazpenak Be-

hatokiaren diagnostika bete-betean berresten du. Adierazpen horretan euskararen egoeraren balorazioa egin du euskalgintzak:

Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen baita.

Behatokiak kezka handiz argitaratu du 2007ko urteko txostena, bi elementu azpimarratuz: progresibotasun-eza eta milaka urraketa izatea; eta gainera, beste behin agerian jartzen du administrazio guztiek urratzen dituztela hizkuntza-eskubideak.

Merkataritzan ere aurrera?

Hezkuntzaren esparruan ez ezik, merkataritzan ere aurre-pausoak eman behar dira. 2008an iaz bezala kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen egoera aztertu dugu. Hain zuzen ere, EAEko Kontsumitzaileen Eskubideen dekretuaren azterketa egin dugu...

Kontseiluak EAEko Kontsumitzaileen Eskubideen dekretua aztertu du, eta zenbait elementu positibo aurkitu dituen arren, oro har ez dela eraginkorra izango ondorioztatu du. Hori egiaztatzeko helburuarekin, *Kontseilutik* aldizkariaren azken azterketa aurkeztu dute, ur-botilen etiketen inguruko analisia hain zuzen ere. Izan ere, aipatutako azterketak argi uzten duen bezala, Euskal Herrian saltzen diren ur botiletan eskasa da oso euskararen presentzia eta onartutako Kontsumitzaileen dekretuak ez du egoera aldatuko, ez baititu, beste alor askoren artean, etiketak arautzen. Kontseiluak burututako bosgarren azterketa da hori eta guztiek egoera kezkagarri bera islatzen dute. Dekretu honekin egoera arautzeko eta hobetzeko aukera berri bat galdu dela adierazi zuen Kontseiluko idazkari nagusiak.

• *Elementu positiboak*

Dekretuaren alde positiboak nabarmendu zituzten lehenbizi Kontseiluko ordezkariak. Bi dira nagusiki dekretuaren ekarpen esanguratsuak. Batetik, Kontseiluak duela zenbait hilabete eskatu zuen bezala, hizkuntza-eskubideak urratzeagatik zigorrak ezarriko dira. Dena den, zigor horiek ez dira zehaztu eta horrela beren aplikazioa oso zalantzakoa da; beraz, azken finean, zigor teoriko moduko batzuk besterik ez dira izango.

Bestetik, positibotzat jo zuen Kontseiluak dekretuak arauak betetzeko epe zehatzak zehaztea. Enpresak egokitzeko epea beharrezkoa da, ez da inoiz kritikatu epe luze bat hautatzea, bai, ordea, eperik gabe aritzea, horrela ez baita ziurtatzen progresibitatea.

• *Zuzendu beharrekoak*

Kontseiluak egindako lehen zuzenketa eremu administratiboetarako buruzkoa da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak Vasconciaren legean bezala, lurraldearen zonifikazioaren alde egin du dekretu honetan, euskaldunon hizkuntza-eskubideak arauz urratzeko bidea ezarriz. Izan ere, dekretua ez da EAE osoan aplikatuko, elebidun tasa %33tik gorakoa duten udalerrietan eta hiriburuetan soilik aplikatuko da. «Non aplikatuko da dekretua beraz?», galdetu dute Kontseiluko ordezkariak. Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen inkesta soziolinguistikoaren datuen arabera, EAEko elebidun tasa %31,1ekoa da, dekretua betetzeko ezarritakoa baino txikiagoa. Bizkaikoa %23koa da eta Arabakoa berriz, %14koa. «Nola da posible EAEko elebidun tasa baino handiagoa izatea gutxienekoa?», galdetu dute.

Arauok hizkuntza komunitateak presentzia duen gune administratibo guztietan aplikatu behar dira. EAERI dagokionez, beraz, udalerririk guztietan. «Edozein kasutan garbi utzi behar da hizkuntza gutxitu baten kasuan ezagutza-tasak ez duela haren lurraldea definitzen», azaldu dute.

Bigarren zuzenketa dekretuak zehazten duen enpresen taimainaren arabera ezarri den mugari buruzkoa da. Enpre-

sen tamaina-irizpideak ez du eskubidea bermatzeko unean muga izan behar, dekretuak enpresa guztiei, merkataritzakoei barne, eragin beharko lieke. «Egokitzeko zailtasun handiagoak dituztenek laguntza gehiago jaso behar dute eta epe handiagoa eskaini behar zaie dagozkien helburuetara iristeko», uste du Kontseiluak.

Hirugarrenez, kontsumitzaile euskaldunon hizkuntza-eskubideak jardun ekonomiko guztietan bermatu behar dira. Dekretu hau nagusiki garraioaz, telefonia enpresez, energia hornitzaileez eta gainazal handiez ari da, gainerakoak kanpoan utziz. Kontseiluko ordezkariak gai arriskutsuei arreta berezia eskaini behar zaiela nabarmendu zuten.

- *Ezta bosgarrenean ere*

Bestetik, etiketen gaia guztiz kanpo uztea salatu dute Kontseiluko ordezkariak. Euskal Herrian salerosten diren produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie euskaraz etiketatzeko araua. Horixe da hain zuzen ere Bartzelonako deklarazioaren 50.2. artikulua adierazten duena: hizkuntz komunitate propioaren lurraldeen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntzan informazio osoa izateko idatzia zein ahozkoa, lurraldean finkatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuez, hala nola erabiltze-jarraitzaileak, etiketak, osagai-zerrendak, publikitateak, bermeak eta gainerakoak.

Kontseiluak burututako bost azterketek, museoen nahiz zinemen analisiak, ardo botilen eta jogurt etiketen azterketak eta gaur aurkeztutako ur-botilen etiketenak, Bartzelonako deklarazioa ez dela betetzen argi utzi dute. Bost azterketa egin ditugu jada eta guztiek gauza bera erakusten digute: enpresa gehienek gutxieneko zerbitzuak direnak ere ez dituztela euskaraz eskaintzen, bereziki etiketen alorrean.

- *Kontsumitzaileen eskubideen inguruko txostenak*

Kontseiluak erabiltzaileen eskubideen garrantzia behin baino gehiagotan azpimarratu du. Batetik, iaz Kontseiluak «Euskaldunon hizkuntza-eskubideak kontsumo harremane-

tan» txostenaren bidez egoeraren azterketa egiteaz gain, babeserako beharrezkoak diren puntuak aipatu zituen. Gaur dekretuari egindako zuzenketak aurretik jakinarazi zituen: gune administratibo guztietan agertu beharra, gai arrisku-tsuek eta botikek lehenetasun berezia behar dutela...

Behatokiak ere, iaz, gaiari buruzko txosten berezitua argitaratu zuen. «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak Euskal Herrian» izenburupean (www.behatokia.org/dokumentuak/TB09E.pdf), Europar Batasuneko, Frantziako estatuko, Espainiako estatuko, Nafarroako eta EAeko araudia aztertu zuen. Horren bitartez, euskaldunon hizkuntza-eskubideak ez direla bermatzen ondorioztatu zuen. Azterketa kontsumitzaile euskaldunek gero eta kexa gehiago egiten dituztelako burutu zen. Esan bezala, Behatokiak kexak 'euskararen telefonoaren bidez jasotzen ditu' (www.euskara.rentelefonia.com eta 902 194 332).

2009an pauso bat harago

Aurreko urtea bukatu dugu 'pauso bat harago' eman nahi dugula aldarrikatuz. Horretarako elkartu ginen abenduaren 13an, BECeko Bizkaia Arena aretoan. Urte berriari hasiera emateko mugarria izan zen eta 2009an Kontseiluak lanean jarraituko duelako, baina pauso bat harago emanaz. Euskal Herri osoan Euskaraz Bai Dinamika Herrietan proiektuarekin, Bai Euskarari Ziurtagiriarekin, Udalen hizkuntza-politikaren neurketarekin, Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin, irakastereduekin eta euskarak behar dituen proiektu guztiekin lanean jarraituko dugu, baina 'euskaraz bai' ozen aldarrikatuz, hori baita etorkizunean nagusituko den goiburua.¶



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

Gatazkaren ordeaz, krisia

Kulturako gauzetan lardaskatzen hasi aurretik beti egin ohi dut sartu-irten bat politikan, luzeak izaten baitira gure egoera petral honen adarrak, eta era guztietakoak haren ondorioak; aurten, berriz, jendearen kezkabide nagusiak politikarekin ez baizik ekonomiarekin duela zerikusia ohartzen naiz. Horrek esan nahiko luke, beharbada, orain hasten direla benetako arazoak, orain arteko gure koitak esne-bitsetan bizi den jendearen denbora-pasa zirela, gizarte burges ondo-bizi baten buruko min existentzial hutsal samarrak, oina-zeak oinaze; seinale litzateke, halaber, gobernuarekiko azken mus-partidan burnien aldeko apustua egin zutenek hordago ustela jo zutela, norberaren kartak eta aurkariarenak baloratzten jakin gabe. Denon, baina batez ere beraien, kalterako.

Gatazka ez baizik eta krisia, horra bada modako hitza, no-nahi ageri eta geroan ere inguratuko gaituena, ez baita sumatzen noraino iritsiko diren haren atzaparkadak, ezta noiz arte iraungo duten ere. Zerbait jakin uste dutenek *a posteriori* esplikatuko digute gertatutakoa, baina etorkizunari antzemateko, berdin-berdin balio dute gure aurrezki kutxako adituaren usteak eta aldameneko bidente afrokubatarraren aburuak: hutsaren hurrena.

Patxi Obamak salbatuko al gaitu?

Bada beste datu esanguratsu bat, gatazkaren inguruko al-bisteen gutxitzeaz batera, politikaren garrantzi erlatiboak zenbaterainoko galera izan duen erakusten duena. Hautes-

kunde bezperetan gaude Komunitate Autonomoan, baina une honetan (azaroaren azken egunetan ari naiz lerrook idazten), edonori hauteskundeei buruz galdetuz gero, Barack Obamak irabazi berri duen horretaz erantzungo ligu-ke. Globalizazioaz edo amerikanizazioaz hitz egin diezada-kezue, munduaren balizko aldaketaz eta AEBetan sorturiko espektatiba faltsuez; hangoaz ez baizik hemengoaz jardun nahi dut nik, eta deigarria egiten zait une honetako apatia (pentsatzekoa da lerrook argitaratzerako apur bat girotuago ibiliko garelara, ez beharbada guztiz gorituta baina).

Hauteskunde hauek, gainera, inoizko interesgarrienak di-rela esango nuke, gobernu-alternantzia posible izan litekeen aldetik. Eta bitxia da antzeko egoera bizi izan dugun aldie-kin konparatzea. Batzuek oraindik «Mendiguren gaztea» dei-tzen didaten arren (deitzaile horiek ni baino zaharragoak, normalean), baditut urte batzuk eta oroitzen dut EA-PNV zatiketa gertatu osteko lehenengo legebiltzarra, orain hoge-i urte pasa, Txiki Benegasen PSEk EAJk baino bi parlamenta-ri gehiago izan zituenekoa. Lehendakari «espainolista» bat izan zitekeela pentsatze hutsa sakrilegio antzeko bat zen as-korentzat: hormetako pintada dramatikoak gogoratzen di-tut, espainiarren aizkora Gernikako haritza moztu nahian; halako patetismora iritsi gabe, isilka bada ere, aukera horrek hotzikara moduko bat eragiten zion euskaltzale «arruntari» (halako orokortzeak barkatzen badizkidazue).

Jo dezagun aurrera. Gogora dezagun, 2001ean Mayor Ore-ja-Redondo Terreros tandemak Ajuria Enearen konkista an-tolatu zuenekoa. Egiatzko izuikara eragin zuen aliantza santu hark, eta erreakzioz inoiz baino boto kopuru handiagoa lor-tu zuten EAJk eta EAK elkarlanean (ezker abertzaleko boto pragmatiko asko eta asko, tartean), Ibarretxe abertzaleen txa-peldun berri agerraraziz, Ardanza epelaren aldean.

Oraingoan desberdinak dira kontuak. Batzokian erabaki-tako lanpostu bati esker bizi diren etxeetan dardarka izango dira akaso, eta ez dira gutxi egoera horretan daudenak, inon-dik ere; baina bestela, nik ez dut sumatzen kalean halako

beldurrik, eta euskaltzale «arrunta» (kakotx guztiekin idatzita) nahiko axolagabe, egia esanda.

Horretan zerikusia izan dezake Patxi Lopezek euskararen gainean egin zuen aldarrikapen ofizialak. Adierazpen horrek nik uste bi helburu zituela: bat, edonork ikusten duena eta aldeko zein kontrakoek aipatu dutena, nor bere ikuspegitik: PSE euskararen kontra ez dagoela azpimarratzea, Lehendakaritza eskuratuz gero denentzat gobernatuko dutela eta jeltzaleak ordezkatzeko sasoia dela erakustea; pertsuasio-mezua litzateke hori; baina, horrez gainera, mezu disuasorio bat zegoen, nik uste: euskararen alde ematen diren diru-laguntza guztiei eutsiko zaiela espresuki adierazita, zeharka, mezu hau ematen zaie ezker abertzaleko boto-emai-le posibilitatei eta bizibidea euskarari loturik dutenei: ez izan «spainolisten» beldurrik, ez pentsa zuen hizkuntza maitea eta subentzioak pikutara bidaltzera goazenik, eman lasai HBren aldeko boto baliogabea edo abstentzioa, ez zaitzete jausi Ibarretxeren besoetan, PNVk ez baitu egingo guk egingo ez genukeenik (edo alderantziz).

Eta, hala eta guztiz, ze pasio gutxi pizten duen Lopezek. Beldurrik ez, esan dut, baina ilusiorik ere ez, batere. Juanjo Bush kentzera datorren Patxi Obama legez aurkeztu nahiko digute, baina karisma pixka bat beharko luke horretarako, besteak beste.

Zabor gehiegi alfonbra azpian

Eta hala ere, ez litzateke txarra aldaketa bat edukiko bage-nu Mendebaldeko Euskal Herri honetan, noizbait. Alderdi Jeltzalearekiko errespetuz diot: inertziak pilatuz doaz, agintari batzuen tik-ak agintekeria bihurtzen, besaulkiak norbere ipurdiaren forma hartzen duenean erosokeria ez da urruti izaten. Jendeak erabakiko du bere botoekin zer egin eta nor nahi duen agintean; EAJk 30 urtez eutsi baldin badio botereari, horri esker izan da (beraren bertuteek edo kontrakoak akatsek izan duten zerikusi gehiago, axola ez zaigun

auzia da eta objektiboki argitu ezin dena); beste 30 urte ere irauin lezake, orain arte bezala batarekin edo bestearrekin al-dian aldiko itunak eginez, horretarako abilezia ere erakutsia baitu (anbiguotasuna, pragmatismoa, botere-gosea... bakoitzak aukera dezala nahi duen arrazoia, baina funtsean egoe-ra blokeatu bateko erdigunea izaten asmatzea dagoela esango nuke nik). Eta hala ere, errepikatzen dut, noizean behin gelak egurastea komeni den bezala, oposizio-aldi bat ez litzaioke txarto etorriko akaso Alderdiari, higieagatik besterik ez bada.

30 urteen errepassoa eginez gero, bakoitzak nahi dituen aitzakiak aterako ditu baina gauza asko egin dira aginte autonomikotik, gure bizitza erabat aldatu dutenak; luzeegia litzateke zerrenda eta bidegabea batzuk bakarrik aipatzea. Proiektuei gehienetan ilusioz heldu zaiela sinesten dut, eta gauzak oro har txukun egin direla. Jeltzaleen alde segituko dut esaten, ez zaidala iruditzen ustelkeria handietan sartu direnik, oro har berriro ere, lagunkeria eta nepotismo adibideak denok ezagutzen ditugun arren. Baina narraskeriak eta lardaskeriak pilatuz doaz; adibide txiki baterako, eta kulturaren alorretik mugitu gabe, azken urte honetan ikergai izan dira Guggenheim museoan izandako irregulartasunak, Balaentziaga museoaren proiektuan egindako desmasiak, Prailaitzeko kobaren ondoan egiten ari diren txikizioa, Kepa Junkera musikariarentzako laguntza neurritz gainekoak... Banan-banan hartuta ez dira sekulako eskandaluak, baina zabor gehiegi ari gara pilatzen, dena alfonbra azpian sartu eta aurrera segitzeko.

Behi argalen ondotik argalagoak?

Krisia datorrela esaten ari dira bazterretan eta ez dago du-darik iritsi dela, hainbat alorretara. Behi gizenen aroa pasatu eta behi argalen garaia omen dator. Hala ere, pentsatzen jartzen da bat, atzean utzi omen dugun oparoaldirik gozatu ez duenak zer ikusi behar ote du? Junkera izan ezean, oso

bolada txarra bizi du euskal musikak aspaldian, sormenean eskas eta diskogintzan gainbehera; euskal zinemak, urte batzuetako irudikeriaren ondotik, bere biluztasuna utzi digu agerian: aurten ez film luzerik, eta laburrik ere apenas; eta horrela beste hainbat arlo. Larre motzean hazitakoak garela esan ohi dugu batzuetan euskal gauzetan gabiltzanok, baina ez dakit ba, gainera datorkigun dieta ez ote den zorrotzegia izango...

Pixka bat da asco eta Kontseiluak gehiago

Euskararen sustapenari dagokionez, ez da gauza berria, urteak daramatzagu instituzioak eta gizarte erakundeak nor bere aldetik dabiltzala, beti elkarri zeharka begira baina inoiz elkarlanera iritsi gabe. Gizarte erakundeek salatzen dute beraiek egiten zituzten gauzak kopia egin nahi dizkietela instituzioetatik; instituzioetatik diote gizarte elkarte eta erakundeak ez daudela gobernuari lehia egiteko, beste zeregin batzuetarako baizik. Kontuak kontu, euskararen inguruko kalaka gero eta aspergarriagoa egiten zait; eta gaitz erdi nire arazoa balitz, susmoa baitut sentipen zabaldua dela euskaraz bizi eta euskararen alde gauden askoren artean. «Pixka bat es mucho», eitb-tik gau eta egun errepi-katu diguten arren, kanpaina patetikoa izan da, euskal mundura jendea pixkana erakartzearen aitzakian inoiz pausorik eman ez duten txepelen egonkeria justifikatzeko balio izan duena. Kontseiluak, berriz, 10 urteko ibilbidea ospatzeko BECera deitu gaitu. Orain 10 urte 5 estadio bete zituen jendeak; orain erakustazoka bat. Eta bitartean betiko matrakarekin. Egundoko aurrerapena, ezta?¶



LAURA MINTEGI

Gotzon Garate in memoriam

Hiletak funtzio terapeutikoa dauka. Doluaren atal garrantzitsua da. Behar-beharrezkoa dugu mina sozializatzea eta galeraren hutsunea hutsune bera sentitzen dutenekin konpartitzea. Barrea beste, edo areago, konpartitu beharra dugu negarra, oinazea arintzen ez badu ere. Hileta da liburu bat ixtea bezalakoa. Nahiz eta badakigun amaitu egin dela eta istorioa bukatua dela, fini dela, akabo, hala ere ez dugu amaitutzat eman nahi, eta mesanotxearen gainean uzten dugu aste luzez, oraindik ere segidaren bat izango duelako esperoan. Hiletak diosku unea heldu dela, bukaera, ez duela segidarik; beste une batzuk eta beste bizipen batzuk etorriko dira, liburu berriak, baina ez da itzuliko iraugi egin dena. Uneren batean liburua itxi behar izango dugu eta apalategian gorde. Eta denbora luzean ikusiko ez badugu ere, gure barnean eramango dugu luze, elkarrekin igarotako une gozoak, bere hitzek iradoki dizkiguten sentsazioak, elkarrekin bizi izandako ordu ederrak.

Liburuak bezala, lagunek ere ez gaituzte inoiz utziko. Gu-rekin daramatzagu. Baina hileta behar dugu, jakiteko noiz itxi kapitulua. Ezinbesteko antzezpena da agurraren zere- monia burutzeko, eta hura egin ezean ez dago bakerik norberaren baitan. Halaxe bizi izan dut noizbait, lagun hilaren familiak erabaki duenean ezer ez egitea —ez elizkizunik ezta bestelako ekitaldirik ere—; eta halaxe ere bizi izan dute senideek gerran eraila edo desagertua izan den etxeoari lur eman ezin izan diotenean. Bakerik ez dago doluaren proze- sua burutzen ez duenarentzat.

Hiletan pena konpartitu eta mina sozializatu egiten dugu, gabezia, falta izanaren hotza, eta hura partitzean askapen modukoa gureganatzen dugu, bizitzaren etapa bati amaiera ematen diogula ohartzean; horixe baita egintza errituaren funtzioa, sentipen indibidualak kolektibizatzeko saioa.

Bizirik zeudela handi ikusten nituen adiskide batzuk eta handitu egin ziren heriotzaren ostean, heriotzari aurre nola egin zioten ikusarazi zigutenean. Gotzon Garate izan zen horietariko bat, eta Iñaki Uriarte lagun mina, eta Joxemi Zumalabe adiskide eta maisua, eta Andolin Eguzkitza ahan-tzezina. Beraiekin batera gure zerbait joan egin dela nozitzen dugu gure baitan, baina, aldi berean, euren zatiren bat gugan gelditu dela sumatzen dugu, gu bizi artean bizirik iraungo dutela, gu garena izateko eurak izan zirelako, izan. Gugan zaudete, Joxemi, Iñaki, Andolin, Gotzon, betiko.

Zer sartu non (museozaletasuna dela eta)

Zer egin, horixe da galdera, kutsu lenindarra duen galdera alegia. Galdera da nork sortuko duen, nola, zein baliabiderek, zer adierazteko. Galdera da zein arte mota isurtzen duen garai historiko latzak, gosetearekin amaitu jakin ez, eta sistema kapitalista mantentzearen milioika milioi gastatzeko prest dagoen garai ankerra, gosetea kolpe batez ezaba lezakeen arren. Galdera da nola, zein estetikarekin, nolako testura, material edo teknikarekin irudikatuko duten pintore eta eskultoreek munduaren ibilbide zoroa, nola azalduko diguten kontraesana, komunikabideen globalizazioak ekarri digula inkomunikazioa, antipoda inoiz baino hurbilago dagoela eta inoizko urrunen dagoela alboko atean bizi den auzokoa. Kontua da asmatzea zein artelanek lortuko duen irudikatzea gure garaia, *Guernica*-k 1937 urtea irudikatu zuen legez, zeinek islatuko duen 2008 urtea; kontua da asmatzea zer egin genezakeen arte garai-kidea garatzeko, sortzailei laguntzeko, kulturari aupada emateko.

Galdera, beraz, ez da non, baizik eta zer. Galdera ez da non gorde, zer gorde ez badaukagu. Galdera ez da non sartu atzerrian erositako artelana errearen prezioan, baizik eta zein artelan mota ari den islatzen gure irudia munduan.

Entziklopedia argitaratu aurretik pentsamendua garatu beharko genuke, nire irudiko, teoriak landu eta formulatzen jakin. Akademia sortu aurretik zientzia jorratu beharko litzateke, esperimentazioari ekin, enpirikotasuna landu, konklusioak atera, zerbait asmatu.

Gure lurraldean, ordea, edukitzailea garrantzitsuagoa da edukia baino. Garrantzitsuagoa da nork bere kutxa izatea, axola gabe zer gordetzen den kutxa barruan; balioa ematen zaio auto amerikar dotore aleroiduna edukitzeari, nahiz eta bolido ibilarazteko sosik ez gorde eta gasolarik gabe utzi. Ibilgailua elikatzeke, kulturgintza elikatu beharra dago aurretik.

Ez dut ulertzen zergatik zabaldu nahi den Urdaibain estatu-batuarren negozioaren beste frankizia bat. Ez dakit zergatik eman behar zaion dirua izena honezkero jarrita dakarren inbentuari. Ez dut ulertzen sumisio politika hori, frankiziak guggenheim izena badarama ere. Erantzuna suma daiteke, noski, baina ez du zerikusirik kulturarekin (oso zentzu zaballean hartzen ez bada). Zergatia ekonomiko hutsa da. Ekonomiaren garrantzia ukatu ez arren, otoi, ez mozorrotu kulturaz. Iraingarria da. Museoak egin ordez, Maxim's ospetsuaren frankizia jarri. Edo World Series kotxe lasterketa garestia hurrengo edizioa antolatu, Bilbo mapan kokatzea baldin bada helburua.

Bitartean, baliteke Modigliani bat edukitzea gure artean, Monet, Klimt edo Moore, baina gure agintariek ohartu orduko hil egingo zitzaigun gose eta nazkaz, eta beraren irudiak eskegita egongo dira edozein gaztetxetako horma umeletan. Museotik kanpo alegia.

Funtsean, bi kontzeptu daude kultur politika egiteko orduan. Bata deitzen dut Musée D'Orsayren sindromea, post-estrukturalismoaren paradigma. Besteari esaten diot Pompidou sindromea.

Musée d'Orsayren filosofia da historian zehar arrakastatsuak izan diren estilo guztiak nahastu, gela berean sartu eta nahasketaren bidez itxura eman zerbait berria egin dugula. Zer da berria? Ordena soilik, kombinatoria hutsa, estilo ba-koitza kasillero ezberdin batean kokatu, garai ezberdinetako estetika elkarren ondoan ezarri, kontrasteaz jolastu, anakronismoaz, baina estetika berririk proposatu gabe. Teoria borgesiarra alegia. Denak dira balio seguruak, kutxa dotorean sartu (Parisko tren geltoki zaharberritua) eta hura saltzen da berria delakoan. Arriskurik ez, apustu berririk ez, segu-rola jokatu.

Sormenaren aldeko apustua, ordea, Pompidou Museoa da, bere garaian apurtzailea, estetika berria eskaini zuen, haustura ekarri zuen garaiko museogintzan, begi-bistan utzi zuen barnealdea, tuberiak eta eskaillerak, kondukzio elektrikoak, beirazko hormak, kaletik ikusten zen barrualdea. Iru-diaz gain, Pompidouren filosofia parte-hartzailea zen, interakzioa bultzatzen zuen, ez zuen ikusle pasiborik nahi, bisitaria behartzen zuen informatzera, jakitera eta liburutegia zabalik zuen edonorentzat, unean kontsultatzeko arteaz edo literaturaz, edozertaz. Inauguratu zen garaian, 1977an, gu-rean liburu bat lortzeko eskaera egin eta zain egon behar izaten genuen liburuzainak ekarri bitartean.

Enfin, zer esan, lurralde honetan D'Orsay ereduak aukeratu izan da Pompidou ereduaren ordez.

ETB3, Etxepare Institutua eta kutxa hutsak

Museoen sindromearekin gertatu bezala, beste arlo askotan ere presa handiagoa dago kutxa egiteko barruan gordeko duguna sortzeko baino. *Lifting* operazioak dira, azal-azalekoak, sakontasunik gabekoak. Hipomamua dugu bat, aurretik saldu zen kutxa eta hutsik dugu barrualdekoa. ETB3 dugu beste adibide bat. Inozoak izan ginen pentsatu bagenuen azkenean euskaldunok telebista osoa euskara hutsean edukiko genuela; hondakinak bildu dituzte eta zaharra saldu digu-

te berria delakoan. Beldur naiz ez ote den antzerakoa gertatuko Etxepare Institutu sortu berriarekin. Itxura txarra hartu diot. Esandakoagatik, eraikin ederra sortu nahi dute ezer berririk ez sartzeko; honezkero sakabanatuta dituzten trasteak bildu egingo dituzte eta etxe berrian sartu (euskara eskolak atzerrian, euskal etxeak, ferietako txangoak); baina, nik dakidala, ez dute jo kulturgileengana galdetzera zer nolako espazioa beharko luketen institutu berrian, zer egiteko, zeintzuk diren beharrizanak. Jauregi handi eta hutsa eraikitzen ari dira, eta kulturgileok baxera txiki eta hezeak ditugu trastez beteta, kabitu ezinik. Eta ezin joan institutura okupa.

Begirune txikia sumatzen da sortzaileekiko, mespretxa, destaina. Erakundeek ez dute konfiantzarik bertako sortzaileengan. Nahikoa dute egile bakarrarekin kontatu arlo bakoitzean. Nahikoa da idazle bat edukitzea, musikari bat, eskultore bat. Euskal artea badenik esateko. Bat eta bakarra, euskal idazleA, musikariA, eskultoreA, besterik ez balego bezala. Gehiagorik ez, anabasa saihesteko, sortzaileek espiritu kritikoa izaten baitute, ideologia ere badute hainbatek, eta deserosoak suertatzen direlako. Bakarra aukeratzearena aspaldidanik erabakitako politika da eta sistematikoki burutzen ari dira. Lotsa gabe.

ETBk egiatan egingo baldin balu euskal kulturaren aldeko apustua, lehenik, ez zituzkeen jarriko euskaldunak gaztelaniaz mintzo elkarrizketa egin bakoitzean. ETB1erako galdarak euskaraz galdetu eta, segidan, gaztelaniaz mintzarazi egiten ditu euskaldun guztiak ETB2rako. Eskizofrenia ankerria. ETB1 ikusi ezean ez dugu jakiten etorkin senegaldarrak euskara jatorrean jarduten duela bere herrira oporretan bueltatu eta dokumentala egiten diotenean. Ez dakigu zenbat futbolari diren euskaldun peto-petoak EBT2n baino ez baditugu ikusten. Euskal idazleak trakets agertzen dira gaztelaniaz azaltzen dutenean hiru minutu lehenago euskaraz azaldu duten bera, beste katerako. Erdal ikusleei estaltzen ari zaie euskarazko mundurik ere badenik. Eta hori barkaezina da. Ez dugu behar hirugarren katerik bigarrenetik de-

seraikitzen ari baldin bada beste bietan eraiki nahi ei den euskarazko unibertsoa.

Eta disimuluan, pildora edulkoratuak eskaintzen dira kontzientziaren lasaigarri, Euskadi Literatur Sariak, esaterako, edo Frankfurtoko Azokarako txango domestikatuak. Ez, ezin da bultzatu euskal kulturgintza kulturgileekiko mesfidantza, gutxiespena, errezeloa, beldurra eta konfiantza falta baldin badago. Laguntzeko modua da uko egitea den-dena kontrolpean eduki nahi izateko tentazioari; laguntzea da ez jakitea zer erantzungo diguten galdetzen dugunean eta, hala ere, galdetzea; laguntzea da jakitea (eta barneratzea) banatzen dugun dirua ez dela gurea, ez dela erakundearena, erakundeak banatu egiten baitu guztiona den dirua. Bestelako jarduna ez da laguntza, sumisioa da.

Euskal Unibertsitatea Fundazioa

Tristeia da esatea, baina euskararen ikuspuntutik interesgarriak izan diren ekimen gehienak hauspo pribatuari esker sortu dira, eta erakundeek bere egin orduko, edo finantziatu orduko, aurretik probatu behar izan dute bideragarriak direla eta onarpen soziala eduki badutela. Buruan ditud AEK, ikastolak, *Euskaldunon Egunkaria*, Kontseiluaren ziurtagiriak eta abar. Euskal Unibertsitateak aurrekoen bideari ekin dio, bultzaka dituenak erakunde pribatuak baitira, UEU batetik eta Nazio Eztatidagunea bestetik.

Pribatua izateak ez du esan nahi bokazio publikoa ez duenik, noski. Pribatua, gurean, ez da elitista eta eksklusiboaren sinonimoa. Pribatuak esan nahi du jabea ez dela bolada elektoralen arabera aldatuko eta, batez ere, bufada politiko batek ezin izango zukeela bertan behera utzi, ekimena mar txan jarri dutenek aurrera segituko baitute erakundeetan edozein kolore politiko badago ere, proiektuan sinistu egiten dutelako.

Aipatutako ildo beretik dator Euskal Unibertsitatea ere, arnas luzeko proiektua inondik ere. Bilboko Unibertsitatea

sortu aurretik mintzatzen zen Euskal Unibertsitateaz, baina hura beste produktu batean gauzatu zen, EHU izenaz ezagutzen duguna alegia.

Euskara hutsezko unibertsitatearen oinarria, ordea, 2001ean ezarri zen. EHEU herri ekimenak 2001. urtearen hasieran ekin zion bere ibilbideari, Euskal Unibertsitatearen aldarrikapen historikoari bide eman eta horren aldeko bilgune zabalak bilatzeko asmoz. Bi urte beranduago, 2003an, UEUK II. Kongresuan Euskal Unibertsitatearen egitasmoa diseinatu eta martxan jartzeko lan-taldea osatu zuen, eta, urte berean, Nazio Eztatidaguneak Euskal Herriaren egoeraren azterketa egin zuen. 2004an Euskal Unibertsitatearen Sustapen Batzordea (EUSB) eratu zen eta arlo akademikoan, soziologikoan zein juridikoan txosten bana landu zuen. Oso-tara 104 eragilek zein adituk hartu zuten parte.

2005ean I. Nazio Eztatida bildu zen Zarautzen. 31.000 euskal herritarrek eman zioten babesak proiektu berri horri. 2006ko martxoan, Iruñean, Euskal Unibertsitatearen egitasmoa lehentasunezko erronken artean kokatu zen Nazio Plannaren barruan.

Egun, lan bikoitza egiten ari da. Fundazioa aztertzen ari da bideragarritasun ekonomikoa eta juridikoa, eta UEUri dagokio arlo akademikoa jorratzea. Hau da, berak proposatuko du zeintzuk diren martxan jarriko diren lehenengo titulazioak. 2008 urtean, beraz, aurrerapauso handiak burutu dira Euskal Unibertsitatea sortzeko bidean.

EHU barrutik ezagutzen duen edonork ondo asko daki EHUtik ez dela inoiz sortuko Euskal Unibertsitatea, lehenik eta behin, lurraldearen arazoagatik, baina baita izaera juridikoagatik, ibilbide historikoagatik eta borondate politiko ezagatik ere.

Zatiketa administratiboa eta judiziala gaindiezina da. Egungo egitura politikoak ez du permititzen Euskal Herri osorako instituzio unibertsitarioa eraikitzea banaketa legalarekin topo egin gabe. Horrexegatik abiarazi behar da beste ikuspuntu batetik, beste eragile batzuek bultzatuta. Egitura su-

pra-autonomiko batek eragin behar du, nazioak, gaurkoz, ez duelako berezko egiturarik.

Datorren urteko balantzea idatziko dutenek ikusiko dute zer esan daitekeen 2009an Euskal Unibertsitateaz. 2008ko talaiatik esan daitekeena da aurrera doala egitasmoa eta, beste egitasmo batzuetan ez bezala, kasu honetan itxura ona du. Baliteke uste baino arinago edukitzea euskara hutsezko unibertsitatea gure seme-alabentzat.

Hezkuntza ereduaren gaineko eztabaida

Pauso bat aurrera eta bi atzera. Euskararen espazioaz ari garenean sentsazioa beti izaten da aurrera egiten dugula bigorritik eta atzera autobidean. Gauzaren batean aurrera egin ahala, atzera egiten dugu beste arlo batean. Eta, hala ere, baikor azaldu beharra dago, euskararen arloan, emakumeenean bezala, sirimiri finak busti egin duelako gizartea.

Egun normaltzat jotzen dugu agiri eta dokumentuak bi hizkuntzetan egin behar izatea, edozein ekitaldi antolatzean itzulpenaren beharrez kontuan hartzea; eta alderdi espainolen buruzagiak EAEko erakundeetara ailegatu nahi izanez gero, badakite hizkuntza jakin behar dutela neurriren batean, eta hura erabiltzen ahalegintzen dira kanpainan ez bada ere. Hau da, sakon sartu da ez dela gauza bera jardutea politikagintzan Malagan edo Donostian, Bilbon edo Pontevedran. Hemen jarduteko euskararen faktorea ezinbestekoa da eta talde erreazionarioen ere euskaraz jardun behar izatea ezinbestekotzat jotzen dute: Ermuko Foroak berak euskarazko bertsioa eskaintzen du bere webgunean, euskarazalea ez izanagatik. Lorpen sozial handia delakoan nago.

Hezkuntza ereduaren gainean sortu den eztabaida zeharo interesgarria da arlo horretatik begiratuta. Gaur egungo ereduarekin deskontent daudenek ere onartu behar izaten dute euskarazko hezkuntza errealitatea dela, eskaera soziala gero eta handiagoa dela eta ez dagoela enoratzetik gizarte honek bere burua elebiduntzat duela, ideologiaren ginetik gurasoek

nahi dutelako seme-alabak ondo kokatuta egotea etorkizunean lan munduan. Eta etorkizuna elebidun ikusten dute. Nahi dute seme-alabek euskara jakitea postu hobea lortuko dutelako *pole position*-ean. Haurrak eredu elebidunetan matrikulatzen dituzte, nahiz eta *El Correo* irakurri egunero eta botoa eman alderdi ez nazionalistei. Kontuan hartzen dute, euren ideologiaren gainera, nolako tresnak emango dizkieten euren seme-alabei bizitzan aurrera egin dezaten. Eta horretarako baloratzen dute gazteek hobe dutela euskara jakitea ez jakitea baino, badaezpada. Nire ikuspuntutik, horrek guztiak adierazten du bataila irabazi egin dela: gazteak euskalduntzen dira, ez nazionalismoaren ideologiarekin bat egiten dutelako, baizik eta haizeak elebitasunaren alde jotzen duelako.

Lerro hauek idaztean ez dakit zertan gauzatuko den hezkuntza ereduaren gaineko dekretuaren erreforma Eusko Legebiltzarrean, baina politikari espainolzonek galduta dute bataila. Legearen testuaz gogor jokatzeko badute ere, euren botoa ematen dietenek eredu euskaldunetan matrikulatuko dituzte seme-alabak, zer gerta ere.¶



FITO RODRIGUEZ

Betiereko itzulera

Urteak joan urteak etorri, euskal munduan behintzat, betiereko orainaldian giltzapeturik gaudela errepikatzen digute aurtengo kultura-gertakizunek eta, jakina denez, hura zen Erdi Aroan infernuaren definizioa.

Erdi Aroan ez bagaude ere, urteetan zehar galtza gorrien mendean (egun, txapel gorriak idatziko banu zer uler zitekeen batek daki...) egondako hizkuntza ereduen arabera hezkuntza sistema EAEn aldatzear zegoela idazten nuen duela urtebete, baina lehen oraingoz bezala dirauela ez da esan beharrik. Hezkuntza munduan, bada, zaharrak berri.

Hizkuntza Unibertsoan, berriz, berrikuntza gutxi. Joan den urtean EAEko hizkuntza politikako arduradunek Kontseiluari erabileraren ziurtagiria «kopiatu» bazioten, aurten «pixka bat es mucho» moduko sentsibilizatzeko kanpaina, Euskal Herrian zehar euskalgintzaren magalean urtero loratu izan diren haietariko beste bat (abesti eta guzti...) besterik ez zaie otu erakundeen kudeatzaileei. Aurten, aldiz, Kontseiluak «bai euskarari» aldarrikatuzetik «euskaraz bai» egitera joan nahi izatekoan, EAEko hizkuntza politikako arduradunek zer proposatuko duten ikusteke daukagu... ikuskizuna ematen baitu, zoritxarrez, horrek guztiak.

Erakunde politikoek herri antolaketatik sortutakoek egiten dutena ezabatzen eta ordezkatzeko bitartean, gizarte antolakuntzek plangintza politiko orokorrak plazaratzen dituzten hein berean, gurean zerbait ongi ez dabilela argi dago. Eginbeharren nahasketak betiko egoera ez normalizatuaren berri ematen digute berriro ere... Zaharrak berri, beraz,

betiereko itzuleran dabilen harriari... herriari. Eta norbaitek, horrela, goroldiorik ezean biziko garela beti esango badu ere, gurea gurgil zoroa besterik ez dela ihardetsi beharko genioke. Nori berea ematean baitatza egin beharrekoa, eta euskal kulturaren, aitzitik, lan esparruaren araberako zereginak nahiz erantzukizunak beti bezain aldrebesturik daude.

Bakoitzari berea, bada, diodanean, kultura-egoera orokorak estali duen Euskal Idazleen Elkartearen zilarrezko ezteiak azaltzeari ekingo diodala esan nahi dut. Hau da, ez naiz besteen eremuan sartuko betiko anabasa kulturala ez areagotzearren; eta, bestalde, gure lanak euskal kulturaren zer-nolako garrantzia duen agerrarazten saiatuko naiz.

Zeren eta, Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu bere baitan idazle soilak biltzen, euskal idazleak baizik. Hau da, hastape-netako elkartzetako saiakeretatik hasita, euskaraz idazten dutenen kezkei nahiz beharrei erantzun nahi izan die EIEk. Ildo horretatik, EIE bera eratu aurretik, gainerako beste aurretiko bileretan ere (1968ko Ermuko zina kasu...), euskal herritarren artean haien idazkietan euskara erabiltzen dutenak elkartu nahi izan dira. Horretan, Joxe Manuel Odriozola saiakera-egileak horren zorrotz salatzen duen «euskal» hitzaren erabilera lauso bezain bidegabeari muzin eginez («Inor ez da bizi hizkuntza eta kultura jakin batetik at, eta horiek zedarritzen dioten esparrutik kanpo ez dago giza eta gizarte bizitza abstrakturik», in Joxe Manuel Odriozola, *Abertzaleak eta euskara*, Elkar, Donostia, 2008, 73. or.) garatu izan da EIEren estrategia orain arte. Honela, EIE juridikoki 1983ko otsailaren 28an sortu zuten, Anjel Lertxundi lehendakaria zela. Hasiarian EIEren bazkideak 93 ziren. Gaur egun, 325etik gora bazkide ditu eta bere xedeak honako hauek dira:

- Euskal idazleen eskubide profesional eta moralak defendatzea.
- Euskalgintzaren eragile aktiboa eta eraginkorra izatea.
- Euskal literatura zabaltzea Euskal Herri osoan zein atzerrian.
- Idazleen lanaren proiektzio soziala bideratzea.

Horrekin batera, Galeusca literatur jardunaldiak 1985ean hasi ziren Bartzelonan. Garai horretan hiru ildo nagusi landu zituen elkarteak: *Idazleekin solasean* egitasmoa, EIEren ahaleginak Euskal Herri osora zabaltzea (Ipar Euskal Herria eta Nafarroa barne), kultur erakundeekin biltzea eta erakunde instituzionalekin harremanak lantzea. Urte haietan, Joan Mari Torrealdai *Euskal kultura gaur: liburuaren mundua* liburu mardula kaleratu zuenean, EIEri buruzko gogoeta ere azaldu zuen:

harritu eta guzti egiten da bat idazleek zein positiboki baloratzen duten EIE ikusita; %53 dira diotenak ona edo oso ona dela EIEren lana.

Garaikidea dugun aroan, 25. urteurrenarena berrabiatzeko izan daiteke, baina hori geroak esango digu. Honetan behintzat, goroldiorik ez, denbora aurrera doa, nahiz eta askotan konturatu ez. Horren seinale da EIEen bazkietzen lehenengoetakoak izan zirenetako asko hilda egotea: Federiko Krutwig, Juan San Martin, Augustin Zubikarai, Lourdes Iriondo, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Martin Ugalde... eta aurren, esaterako, Henrike Knörr, Gotzon Garate eta Xabier Iratzeder; baina ezin uka 1983an sortu zenetik lan handia egin duela EIEk. Orain, 25. urteurreneko ekimenen kariatara, argazki zaharrak begiratzen hasi eta ederra da garai hartan Elkartearen sorreran parte hartu zuten idazleak bilertan-eta ikustea. Imajina dezakegu zenbat batzar, zenbat buruhauste, zenbat komeria... idazleen elkartea osatzeko. Hori guztia gogoan bildu zen 2008ko urteko bazkideen Batzarra Durango martxoaren 15ean, eta «Durangoko zina» izenburua zeraman agiria irakurri zuten Anjel Lertxundik, Joxerra Garziak, Josemari Velez de Mendizabalek eta nik neronek.

Bestalde, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-k eta Piarres Xarritonek merezitako omenaldia jaso zuten, 25. urteurrenaren kariatara. Jean Louis Davant eta Markos Zapaiinek haien omenezko testuak irakurri zituzten Durango Plateruenan egindako bazkariaren ostean. *Txillardegi*-k

ezin izan zuen jaso, osasun arazoak zirela medio, EIEk oparitutako euskara batuaren gaineko Baionako adierazpenaren oroigarria, eta Davanten emazteak hartu zuen bere orde.

Durangoko zinak, besteak beste, honakoa zioen:

Ermuan, duela berrogei urte, Idazleen Elkartearen zenak aldarrikatutakoa: «*Idazle guztiak baturik, euskara literarioaren batasunaren alde lan egin dezagun*» berriro nahi dugu orain eta hemen.

Euskal Kulturaren, urteen poderioz etorritako urtemugei (Euskal Herriko Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskara Normaltzeko legeria, EITB eta abar...) segida eman die gureak oraingo honetan eta, ospakizunez gain, gure jardunaz bilana egiteko probestu nahi dugu. Hau da, gure Elkarteak bere historian zehar pairatu behar izan dituen ezinbesteko gorabeherak gainditurik, oraingo honetan gero eta eraginkorragoa izateko hartutako deliberoa dugu, agian, lortzen handiena. Legezatu eta gizarteratu ondoren, abagune honetan ditugun erronkei erantzuteko gure eguneroko lanak ari gara berrantolatzen eta, ondo bidean, azpiegiturak, funtzionatzeko erak eta giza baliabideak egokiturik, kultura arloan gertatzen ari den iraultzari behar beste ihardesteko gai izango garelakoan gaude.

[...]

Asko falta zaigu oraindik benetako idazle giroa lortzeko. Elkarren arteko ezaguera eskasa gainditzearen premia badago eta berrikuntzak behar ditugu, baina, gure ustetan, bazkidegoa garaiz eta ongi iritsi da hona, hobetzeko asko eduki arren.

Egonkortasuna lortu nahian, hain zuzen ere, baliabide guztiak Donostiako egoitzan bilduz ahalik eta prestutasun handiena erdiestea da helburua. Aurten, esate baterako, antolaturiko Lihuriko Egunak —Galeuscaren parekoa Iparraldean—; edo Donostiako Poesia Egunen ekimen berreskuratua, 1993an Donostian eta 1994an Durangon arrakastatsu egin ostean, 2007an Donostian berriro ospatu genuen eta, aurrerantzean, aurten bezala, egitasmo horrekin segitzeko asmoa badago.

Lihuriko egunak, bestalde, Bardozen iragan dira aurten, eta hiru egunetan frantses errepublikako hizkuntza gutxi-

tuen literaturei tokia eman nahi izan zitzaien. Aspaldiko egitasmoa izanik, azkenean gauzatzea lortu zen. Horretarako, Baionan talde bat biltzea erabaki zen. Ezin ziren hizkuntza eremu guztiak ekarri, hizkuntza gutxitu asko daudelako; baina geografikoki hurbilenak direnak gomituak izan ziren. Hala nola, Britainiatik, Alsaziatik, Ipar Kataluniatik, Korsikatik, Okzitaniatik baietzak eskuratu ziren.

Hiru egunez, hogeita bost partaide izan ziren, kazetari, poeta, kontalari, bertsolari, denak idazleak. Ondoko elkarretaratzearen antolatzeke, okzitaniarrek proposatu zuten beren burua, denek lan horretan jarraitzeko nahia erakutsi baikenuen. Beraz, ondoko hitzordua Beziers-en izango da datorren urtean. Elkartze historikoa izan zen, lehen urratsa egina izan da, hizkuntza gutxituen indartzearen helburua daukana.

Hegoaldean, aldiz, Galeuscak ere, bere hogeita bosgarren urteurrena ospatzearekin batera, legezko izaera bateratua eman nahi izan dio bere buruari 2008ko ekainaren hamabostean Poblet monastegian. Horrela, Euskal (EIE), Galiziar (AELG) eta Kataluniar Idazleen Elkarteek (AELC) Galeusca Idazleen Elkarten Federazioa sortzea deliberatu dugunez, nortasun eta erabateko gaitasun juridikoa izango du hemendik aurrera kataluniar, galiziar eta euskal idazleak ordezkatzeko, sustatzeko eta defendatzeko; bazkide dituenen ekintzak koordinatzeko; eskubide profesionalen defentsan eraginkortasun handiagoa izateko; modu bateratuan aritzeko; maila autonomikoan zein europarrean, administrazio publikoko erakundeen nahiz erakunde pribatuen aurrean, normaltasuna bultzatzeko literaturan, adierazpen eta euskarri desberdinetan, idazlearen lanbidean, eta aipatutako hizkuntzen erabilera sozial edota sorkuntzan sustapen politikoak eragiteko; loturak bultzatzeko idazleen interesak ordezkatzeko dituzten Federazio edo Elkarteekin; eta baita literatur ekoizpena bere alderdi guztietan zabaltzeko eta komunikatzea ahalbidetzen duten enpresa edo agenteen Federazio eta Elkarteekin harremanetan jartzeko ere.

Federazio horri esker, bada, hiru elkarteak ordezkaturatu egongo dira Estatuko nahiz Europako edozein erakunderen aurrean, publikoa nahiz pribatua izan. Horrek ahalbidetuko du, adibidez, Espainiako Kultur Ministerioaren aurrean hiru elkarteek ordezkaturatu dituen mintzakide bakar bat izatea, nortasun juridiko bakarra eta alderdi juridikoan erabateko gaitasuna duen batekin (hitzarmenak sinatzeko, diru-laguntzak jasotzeko, idazleen lanbideari buruzko arauak negoziatzeko, etab.). Aipaturako helburu horietarako, honako jarduerak egingo ditu Federazioak: alde batetik, hizkuntza ezberdinak eta genero eta euskarri desberdinetan egindako literatur ekoizpena zabaldu eta sustatu; bestetik, gai profesionalei buruzko ikerketa eta heziketa programak garatu eta azterketa monografikoak enkargatu; horretaz gain, biltzarrik, mintegiak, ikastaroak, erakusketak eta beste jarduerak kolektibo batzuk antolatu; eta, azkenik, agiriak, azterlanak eta zabalkuntza lanak argitaratu eta erakunde publiko nahiz pribatuetan parte hartu.

Beraz, Federazio horrek erabateko nortasuna emango dio orain arte batzar «informal» bat zen Galeuscari; eta lehenengo azalpen publikoa Madrildik etorritako «Manifiesto por la lengua común» izeneko idazkiari erantzuna emateko garaian gauzatu da aurtan.

Hizkuntza-zentralismoan ere betiereko itzulera baitator...¶



ALLANDE SOKARROS

Euskalgintzako funtzionarioak

Euskara eta euskal kulturaren garapenerako baliabideak nabarmen hazi dira azken hogeita hamar urteotan. Euskal gizartean sustraitutako eta sendotutako egiturek euskalgintzaren esparru guztia betetzen dute gaur egun, dela euskararen eta euskarazko irakaskuntzarena, dela euskal kulturaren arlo ezberdinena, dela hedabideena.

Euskaldunok geure egitekoak eskuetan hartzen eta bideratzen ditugulako seinale da hori guztia, hori delarik, jakina, bilakaera horren alde ona. Alabaina, nire aburutik, alde txarrak ere badaude, eta horiek aspalditik kezkatzen edo nardatzen nautelarik, aipatu nahi ditut egun, *Jakin*-en iritzi aniztasunaren babesa beste behin ere baliatuz.

Badirudi, euskaltzale eta abertzaleek —bitxia egiten zait bi hitzak baliatzea, ez baitut sobera ulertzen nola izan litekeen bata... bestea izan gabe—, badirudi, beraz, euskaltasunaren bultzatzaileek militantziaz sortutako eta garatutako egiturak desbideratu bezala egiten direla, *jendetasuna* bezala definituko nukeen horretan. Ezen, ikusten eta entzuten direnen arabera, giroa ez da hain ona —askotan txarra ere badela erran daiteke— euskalgintzaren munduan.

Hitz beldurgarri horiek...

Azken hogeita hamar urte hauetan, euskalgintzaren sail ezberdin horietako egiturak garatu egin diren neurrian, hasiera haietako elkartasuna, ahaidetasuna, atxikimendua, kemen... murriztu edota ia erabat galdu ere egin dira. Argi ge-

ra dadila: ez naiz guztiz inozoa; ondo dakit bilakaera hori ia ezinbestekoa dela giza eraikidura edo antolaketa orotan. Kontua da, euskaltzaletasuna —are gehiago abertzaletasuna— makurbide horietatik saihesteko modua izan zitekeelako ustea banuela, ustea badudala oraindik ere.

Nire ikusmoldetik, tamalezko egoera horren eragileetatik izan dira *euskalgintzako funtzionarioak* deituko ditudan horiek. Egiturak kudeatzeko gaitasun handiko jarduleak izan daitezkeela dudarik ez, ongi trebatutakoak daudela zalantzarik ere ez. Baina nabarmen falta zaiena da *jendetasuna*. Profesional hotz eta motzak dira, *eraginkortasuna* arau nagusizat daukatena, *produktibitatea* hitz ikaragarria erabiltzera dudatzen ez direlarik ere sarritan. Ildo horretatik are urrunago joanda eta beste hitz beldurgarri bat lotsagabe erabilia, *giza baliabiderako* egiturak ere eratu dira euskalgintzaren munduan. Zinez, bide horretatik ibilita, ez dakit nora ari garen. Edo, alderantzizkoa aitortuta, beldurra daukat norantz bideratzen gaituen *profesionalizatz*e eredu hits horrek.

Gauzak, alor guztietan, ahal bezain ondo egin behar direla ados nago. Kalitatea bilatu beharreko zerbait dela konforme nago. Euskalgintzaren munduak gaitasunari eutsi behar diola, nola edo hala, onar dezaket ere. Haatik, horiek guztiek *jendetasunarekin* bateragarri behar dutela izan argi eta ozen nahi dut erran. Jendetasuna galtzen duen giza eraikidura batek ez du merezi *giza* aurrizki hori atxikitzea. Orduan, gauzak horrela bihurtu direnez gero, baitezpada go-goetatu egin behar da nola horretaratu garen. Beste behin ere esanda, iritzi baitiot bilakaera deitoragarri horiek ez direla saihestezinak.

Euskalgintzako funtzionario hotz eta motz horietatik bazuk —asko?— euskararen eta euskal kulturaren aldeko borroka gogorren garai haietatik landako belaunaldikoak direla nahi nuke sinetsi. Izango dira bai militantziaz tutik ere ere dakiten horietatik eta beharbada ez dira gutxi. Horiei bost axola zelako kemena, konpromisoa, sakrifizio hitza ere ba-

liatzera ausartuko nintzateke, behar izan den lortutako gutxien-gutxienekoak lortzeko. Horiei bost axola garai prehistoriko haietan batzuek gose greba egin behar izana, Ipar Euskal Herriko ikastolek Frantziako Hezkunde Nazionaletik gutxieneko errekonozimendu bat erdiesteko. Horiei bost axola abertzale batzuk —eta ez uste izan gutxi direnik— oraindik ere, giro nazkagarrien artean, militante gisa ibiltzea, euskalgintzaren mundutik kanpo euren bizibidea askoz ere hobeto garatzeko aukerarik izango zutelarik. Horiei, oro har, bost axola eskuetan hartuta dauzkaten euskalgintzako eraikidurak euskaltzaletasunaren —abertzaletasunaren— lan tema-tsuaren eta sarritan borroka-bideen emaitzak izatea.

Ez dugu sistema aldatzen... sistemak gaitu aldatzen!

Alabaina —eta hau da beharbada penagarriena— euskalgintzako funtzionario hotz eta motz horiek guztiak ez dira euskal izaera salbatzeko eta sustatzeko borroka gogorren garaiak izan ziren haien ondotik etorritakoak. Badira ere eraikuntzarako garai haietako jarduleak izan zirenak, baina, gaurko egunetan, serio-serio egitura kudeatzaile kargutan dihardutenak. Kargua... hori bai —kasu jakin batzuetan behintzat— jendearen izaera eta jokaera aldatu egiten duena. Lehengo euskaltzale horiek —sutsuak nahiz epelak— instituzioetan sartu dira eta, nolabait esanda, *instituzionalizatu* —barkatu hitz itsusi hori— egin dira.

Gizarte azterketa edo soziologia kontuetan adituta ez nago, baina ulertuta daukat, hala ere, batik bat aginte arrotzek eraturako instituzioetan sartzen diren gehienak horiei egokitzen zaizkiela eta, argiki esanda, euskalgintza burujabe baten bideetatik saihestu egiten direla. Hor nonbait ere —eta Ipar Euskal Herria daukat bereziki hizpide— argi daukat arlo guztietan euskal gizarteari aurrerabideak planteatuko dizkion abertzale proiekturik egongo ez den bitartean... Paristik asmatutako bideak direla erabiliko. Eta ez da pentsatu

behar, egoera horrela, instituzio horietan sartuak diren edo sartuko diren euskaltzale-abertzaleek sistema aldatuko dutenik. Ez, sistemak ditu haiek aldatuko. Gizarte antolatuak daudenetik horrela da eta ez du balio amets antzuetan edo gezurretan ibiltzea.

Etsipen eta isiltasunari buru egin

Egoeraren irudi hitsa deskribatzen dudala pentsatuko du beharbada baten batek. Tamalez, horretan garela konturatzeko, nahikoa da euskalgintzako egitura gehien-gehienetan zelako giro txarra den neurtzea. Bakoitza bere lekuan geratzen da, konfiantzazko harremanik ia ez dago, elkarri laguntzea oso urria bihurtu da, eztabaidak erabat itxurazkoak dira. Azken batean, profesional hotz eta motzen egitasmoak dira garatzen, haiek baitakite nola behar den egin eta nola ez. Eta, beharbada den-denetako txarrena, etsipena eta isiltasuna dira nagusitu. Giroaz nazkatuta daudenak ere isilik geratzen dira, euren lana egiten dute eta etxerako bidea hartzen. Alta, etsipenaz, isiltasunaz, buruaren makurtzeaz, beti eta denetan, baliatu dira nagusikeriaren bultzatzaile eta jarraitzaileak eta jendetasunaren zango-pilatzaileak.

Egoera horrekin nazkatuta daudenak ozen mintzatzea bada garaia. Orain dela gutxi, lagun birekin eleketan nengoe-la, gogoan iragan genuen ez ote litekeen, hurrengo egunen batean, «Euskalgintzaren eztabaidaldiak» deitzen ahal lirartekeen topaketa antzekoak antolatzen ahal. Mahai baten edo gehiagoren inguruan bildutakoen artean —eta ez euskalgintzako profesionalak soilik, noski— euskararen eta euskal kulturaren arloetako egituretan bizi den egoera aztertzeko eta hobekuntzarako bideak xedatzeko helburua har lezake te eztabaidaldi horiek. Galdera honakoa da: nork edo nortzuek hartuko du (dute) ekimen horren ardura? Ez nago erantzunaren jabe eta ez dut izan nahi ere, ez naizelako —eskerrak!— euskalgintzako funtzionario hotz eta motz horien bidelagun.

Gorriak ez dira beti gaiztoak!...

Jakin-en ale berezi honetan, urteroko legez, pastoralaz zer edo zer aipa dezadan ez dira harrituko irakurleak. Joan den urtean, Ainharbe, Ezpeize-Ündürene, Sarrikotapea eta Ürrüstoi-Larrabile Pettarreko herriek eskuz esku eta arrakasta oso handiz eman duten *Xiberoko Jauna* trajeriaz ez dizuet ezer kontatuko. Askok ikusi eta gozatu izan duzue, ziur asko, Jean-Louis Davantek idatzitako obra eder bezain hunkigarri hori (zuberotarra eta pastoraltzale grinatsua naizenez gero, barkatuko didazue subjektibitate hori...).

Bi hitz esango dizkizuet, ordea, aurtengo uztaila-abuztuan, Basabürüko Aloze-Ziboze-Onizegainea herriek taularatuko duten *Belagileen trajeria* obraz. Tragedia, bai (euskarra batuko idazkeratik), Lapurdiko seiehun emakume inguru epaitu (haiek epaiak deitzen ahal baziren...) eta suteetan hilarazi baitzituzten, XV. mendean, «sorginak» zirelakoan. Garai haietan, Eliza katolikoaren goibelkeria eta jauntxoan larderia uztartuta ibili ziren, basakeria hori eragitearren.

Dominika *Ttittika* Rekalt adiskideak ondutako trajeria honetan, emakume martirio haiek izango dira Süjet. Alabaina, Gorrien (Türken) atetik jalgiko dira... Kiristi «onak» baitziren —beraien ustetan behintzat— auzi ikaragarri haietako epaile nagusi De Lancre eta Urtubie bezalako jauntxoak. Horra froga, pastoral batean, Urdiñak ez direla beti onak eta Gorriak beti gaiztoak. Zuberoako herri antzerki zaharra ez baita horren manikeoa, askok, lehen begirada batean, usate izaten duten bezala.

Süjeta Kiristi bat den pastoral batean ere gerta daiteke Türkak onak bezala ikusita izatea. Hala, joan den urteko pastoralaren —aipatzen dut azkenean...— 10. jelkaldian, Gurutzadako gerlariak Tunisiako errege Al-Maliken eta bere gudukarien kontrako borroka galtzen dutelarik... txalo zaparradak Gorrientzako izan ziren eta oihu eta txistuak Urdiñentzako. Zuberoako pastoral ikusliarrek argi ikusten dute, kasuan kasu, zein diren «onak» eta zein gaiztoak, ohol-

tza batean non edo non kokaturik ere. Hori dela-eta, zalan-tzarik ez daiteke izan, katoliko sinestun peto-petoengandik ere, *Belagileen trajeria*-ko emakume gorriak begikotasun handienez hartuta egongo direla.

Pastorala ezagutzeko lan baliosa

Idazlan hau amaitzera bidean naizela, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Zuberoako pastoralen ezagutza barnatzeko oso balagarria izango den Allande Agergarai muskildiar fraideak eginiko lan oparoa. Iragan uztailean Jakintza argitaldaria —www.jakintza.fr— plazaratu zuen *Cent ans de pastorales en Soule et dans les Pyrénées* izeneko liburu potolo honetan, 1901 eta 2000. urte bitartean sortutako pastoral guzti-guztiak izendatzen, deskribatzen eta aztertzen ditu egileak. Berak ere pastoralen uzta jori horretan esku-hartzerik izan du, *Allande Oihenart* (Muskildi, 1985) eta *Sabin Arana Goiri* (Garindaine, 1996) obren idazlea izan baitzen. Damugarritzat jo daiteke liburua frantsesez soilik idatzita egotea, baina horrek ere nonbait islatzen du euskarak, Ipar Euskal Herrian, bizi duen egoera larria... euskal kulturaren uzta aberatsa izanik ere. Kontraesan hori konpondu ezean egongo garen bitartean, euskal kulturaren balantze oso baikorrik ez dezakegu egin.¶



ANDRES URRUTIA

Lisboan izan da Akarregi

Behin, birritan, hiru aldiz... ez dakit. Badakit, ordea, Lisboan, Tajo errekarri begira zegoela albiste mingarriak hartu dituela. Besteak beste, berak miresten zituen giza semeak mundu honetatik joan zaizkiolako. Filosofo dugu Akarregi, kostaldeko filosofoa, hain zuzen ere, eta badaki halako uretan ur gazituaren zabalak inoizkorik abegikorrenean hartzen duela bera, Kantauri aldean nahiz Atlantiko partean.

Egunsentian, Chiadoko goi auzoetatik so, harako ontziak bistaratu ditu, beharbada Iparralderantz joan daitezkeenak, lehorretik urrun/hurbil duen Euskal Herrirantz, hain justu ere.

Knörr, Garate, Iratzeder, Etxenagusia: lau izen, lau izan

Lisboako kaleetan barna doa Akarregi. Portugesa entzuten da non-nahi, doinu zahar eta samur baten antzera. Noizean behin, fadoaren doinu urrundua ere. Artean, egunkaria erosi du, Madrileko egunkaria, eta hantxe dator, zokondo batean, Henrike Knörr zenaren heriotza-albiste. Jakin bazekien Akarregik, aspalditik, gaitzak jota zegoela. Espero ez zuena, aldiz, huraxe zen, zendu izanarena, berrikitan jasoa baitzuen haren mezua, posta elektronikoaren bidez. Azkenean ere, lanean zendu da gasteiztarra, euskararen aztararik ñimiñoena ere argitara ekarri eta zabaldu nahian.

Bateko eta besteko jakingarriak erabiltzen zituen hark, hango eta hemengo harremanak, herri xehearekin nahiz goi

mailako jakintsuekin. Xede zituen euskara eta euskal kultura; tokia, mundu osoa; gizalegea eta tankera, ardatz erabakigarriak.

Akarregik, alabaina, egunkaria irakurri ondoren, gogoan ditu harekin izandako elkarrizketa luzeak eta kaier txikiak, Knörrek poltsatik atera eta aurrez aurre zuenaren hitz-jarioa biltzeko asmoarekin ontzen zituenak.

Akarregi ere —halaxe gogoratu du Pombal plazatik ibili bitartean— hartua da kaier horietan, esan eta eginetan, Knörrek zer jasoko zion ez badaki ere. Hura joan zen. Kaierrak, berriz, hemen dira. Jakingo al du Akarregik Knörren eskuak han idatzi zuena?

Lisboara joan-etorriak, esan legez, ugari izan ditu Akarregik aurtan. Halako batean, uda ondoren, adiskide batek deitu dio eskuko telefonora, Gotzon Garate euskaltzalea hil dela esateko. Akarregik, estu eta larri, aukera izan du Lisboatik bertatik adiskide batzuei deitzeko. Horiek baieztatu ez ezik, areagotu ere egin diote informazioa. Luze joan dela haren gaixoaldia. Orduan ere, beti-beti ezpainenetan euskararen kezka.

Deustuko Unibertsitatean ezagutu zuen Akarregik Gotzon Garate. Marxismoa euskaraz, eta, arian-arian, euskal erre-frauak eta euskal literatura-lanak, polizia-eleberriekin batera, hurrenez hurren etorri zaizkio Akarregiri haren eskutik. Batzuk orain ere erabiltzen ditu, horien orri horizatuak esandakoaren lekukoak direla.

Euskararen kezkek, nahitaez, letretara darama Akarregi. Olerkia maite du Akarregik eta sarritan irakurri ditu olerki-liburuak. Kutunen artean, bistan da, *Biziaren olerkiak*. Horren egilea Iratzeder, Belokeko beneditanoa, olerkari fin eta aparta.

Bertsoak ere gogoratu ditu Akarregik, batera zein bestera, Euskal Herri hau osatzen duten Ipar eta Hegoak ezinbestean estekatzen dituztenak:

Hangoek balute suan neurria,
Guk aldiz baginu su pizgarria,

Mendiz bi aldetan zer Goiz-argia,
Salbu bailitake Euskal-Herria!

Azkena, mingarriaren mingarriz, Karmelo Etxenagusia apezpikuak mundu honetatik alde egitea izan da. Isil, zabal eta luze jardun du Akarregik bere buruarekin, Karmelorenak gogoratzeko. Agindua jarri du, bere bostean bete egin beharko duena, alegia, Karmelo Etxenagusia zenari buruz bere ikuspegia ematea.

Euskara, Pirinioetan barrena

Aspalditik zegoen Akarregi Iruñera joan gabe. Bazuen gogotxo, aukera-falta bazuen ere. Horrexegatik, era-erara etorri zaio Euskaltzaindiak urrian antolatu duen XVI. Kongresua. Katalana, okzitaniera, aragoiera eta euskara loturik ikusi ditu Akarregik hainbat arlotan. Hizkuntzen historia, literatura, soziolinguistika eta toponimia izan ditu begi-bistan Akarregik, egile, hizlari eta ikertzaile askoren ikuspegitik.

Bazuen horretarako arrazoirik Euskaltzaindiak. Izan ere, laurogeita hamargarren urteurrenean bizi da Euskararen Akademia, 2008. urtean bukatuko dena.

Akarregik berrikitan ikasi du sarearen ibilbidea eta horra doa. Helbidea www.euskaltzaindia.net da, eta han irakurritakoa honetara dakar:

Aldian-aldian egiten ditu Euskaltzaindiak bere Biltzarrak. Oraingoa hamaseigarrena delarik, aldi eta une erabakigarrian gertatzen da erakundearen ibilbidean. Batetik, 90 urte betetzera doa Euskaltzaindia eta, bestetik, azken urteetan Euskararen Akademiak bere aldaketak eta gaurkotzeak egin ditu, kide zein egitasmo berrietan. Bi horiek uztartzen dira biltzar honetan, hasiera ematen baitio honen bidez Euskaltzaindiak bere 90. urteurrenari, hain justu ere, 2009. urtean zehar garatuko dena. Hala etorri zen 1918-1919 urte bitartean ere, urritik irailera iraun baitzuten Akademia jaioberriaren lehen urratsek.

Orduan bezalaxe, euskarak egun duen espazio geografikoa eta linguistikoa ikertzeko parada ematen digu biltzar honek eta, aldi berean, historian zehar inguru horretan auzo

izan dituen hizkuntzen egoera ere ezagutzeko, ikuspegi akademikotik abiatuta. Horra izan dira deituak hizkuntza horien akademiak, unibertsitateak eta ikerketa-erakundeak, horiekin batera landu nahi dituelako Euskaltzaindiak, ez bakarrik euskararen lehena eta oraina, ezpada euskararen geroa ere, eremu zabal baten bidez, Pirinioen bi aldeetako errealitateak aintzat hartuta.

Dei zabala egiten du, beraz, Euskaltzaindiak ikertzaileek parte har dezaten euren txosten eta lanen bidez eta konpromisoa hartzen du, bere aldetik, Pirinioetako hizkuntzen arteko gune esanguratsua sortzeko, elkarren arteko informazio- eta proiektu-trukaketa lor dezagun.

Halaxe nahiko zuen berrikitan hil zaigun Henrike Knörr euskaltzainkideak. Hari eskainiko zaio omenaldia biltzarraren barruan eta hura izango dugu norabidea, bera izan baitzen biltzar honen proposatzaile eta bultzatzaile nagusia. Haren lekukoa hartu dugu eta hona biltzarraren agertzea, euskararen aurrerakuntzarako pauso eragingarri izango delakoan.

Poztu da Akarregi. Han izango da, aspaldiko adiskideak eta lagun berriak aurkituko dituelakoan. Gerokoak gero.

Euskara, kontsumoa eta hizkuntza-eskubideak

Gai potoloa, beharbada, potoloegia, kulturaren sareetan sartzeko. Ekin beharrekoa, bestalde, inon ez baitago horretarako giltzarri magikorik, euskararen arrazoiak konponduko lituzkeenik.

Akarregik halakoxe titulua ikusi duenean, eskuorri batean idatzita, barre txikia egin du bere kautan. Halakorik! Sinetsi ere ez du egiten. Berak betidanik izan du konfiantza osoa herriko dendariekin, zer erosten zuen egoki azaltzen baitzioten. Gailuak direla, jatekoa dela, eguneroko ogia eta egunkariak direla... euskaraz erosi ditu Akarregik.

Zer dela eta orain euskaraz egin beharra? Azaldu diote Akarregiri kontua ez dela beti egin duen hori ezabatzea, indartzea eta trinkotzea baino. Eusko Jaurlaritzak ere horretan lagunduko du, eta horretarako egin du zorioneko agindua, 123/2008 Dekretua, hain zuzen ere.

Hautsak harrotu omen ditu horrek. Hautsak ez ezik, bateko eta besteko iritzi eta gogoeta kontrajarriak, batzuentzat larregi dena, besteentzat eskas eta urri baita.

Akarregik gogoratu ditu behinolako iragarkiak, euskaraz emanak, amak egunkari zaharren mozkinetatik erakutsi zizkionak: *Nihongo Merkeena. Belle Jardinière Baionan... G.A.C. Apartado 2 Eibar. Bizikletak. Mandatuetako gurditxoak. Umeentzako iru kurpilako txirringa jostaluak. Eskopeta one-nak eta «Tigre» Rifli-k.*

Alferreko eztabaida? Akarregik badaki egun beharrezkoak direla halakoak. Beti ibili da eta Euskararen Akademian aurkitu du horren inguruko hausnarketa. Horretara joan da azaroan, Akademian bertan egin diren jardunaldietara. Adituak, legelariak, merkatariak, kontsumitzaileak aritu dira kontsumoaren nondik norakoak aztertzen, euskararen ikuspegitik.

Akarregi, horiek entzun ondoren, beste behin ere etorri da lehengo puntura, alegia, teoria larregi eta praktika gutxi dagoela euskararen alorrean.

Itxaropen izpia ikusi da, dena den, Akarregiren aurpegian, azaroaren 21ean, ostiralean, Akademiaren egoitzaatik atera denean.

Ilunabarra zen eta euria ari zuen.

Mikel Laboa: kantua ez da isildu

Urtea bukatzen dagoela, oihu mingarria etorri zaio Akarregiri: Mikel Laboa hil da! Zin-zinezko ikurra, euskal kulturaren eramaile eta lanabes, nahiz kantu herritarretan, nahiz erromantze zaharretan, nahiz haurren jokoei musikarik abangoardistena ezartzean.

Ikimilikiliklik deiadar zolia zuen Akarregik, askok, ezin ulertuta bada ere, entzuten zutena harriduraz eta espantuz. Musika berria zen huraxe, inori beldurrik ez eta inoren mendean ez zegoena.

Horren egilea, interpretea, arima eta hauspoa Mikel Laboa zen. Erromerietan nahiz musika-emanaldietan, baziren ha-

ren ahotsetik entzun eta berehala ernearazten zuten kantuak. *Haika mutil, Txoria txori, Geure bazterrak, Baga-biga-higa, Lekeitio...* guztiek bat egiten zuten haren gitarrak ekartzen zizkion doinu eta soinetan.

Ari zen Akarregi euskara berreskuratzen eta euskal kultura bere egiten. Ari zen musikaririk garaikoena ikasten, euskararen bidez. Egiaztatzen zuen guztiz egingarri zela euskara bera ere modernitatearen tresna izatea, eta, beste hizkuntzekin batera, musika esanguratsu eta erakargarriaren jabe izatea.

Ondo du gogoan Akarregik behinolako emanaldia, Suka-rrietako frontoian, guardia zibilak aldamenean, ea norbaitek zerbait esan edo aldarrikatzen zuen, aberri bakar eta handiaren kontra. Frontoiaren aurreko aldean, aldiz, euskarazko letra berrien proiektzioa, eta, harmailetan, entzule gogotsuak.

Gerora ere, Mikel Laboa entzuteko eta ezagutzeko parada izan du Akarregik behin baino gehiagotan. Hark gogoratu zion, Sarrionaindiaren poemak Ondarroan kantatu ostean, zer-nolako umealdia izan zuen berak Lekeitio aldean, Bizkaiko kostaldea izan baitzen haren babeslekua gerra-garaian.

Hasieratik azkeneraino maite zituen hark herriko koplak, eta,aldi berean, euskarari atera nahi zizkion ahalmen adierazgarri guztiak. Musika, harentzat, finko eta arimarik gabekoa baino, egunik egun aldagarri eta egokitu beharreko zerbait zen. Hala jokatu zuen berak eta hala lortu zuen, lortu ere, askoren begirunea eta miresmena, guztiok, musikari nahiz musikazale, haren doinuak eta letrak behin baino gehiagotan ekarri baitituzte ezpainenara, poza, malenkonia edo tristura gurekin zituztela.

Mikel Laboaren gorputza gelditu da, eten da, gorpu dago. Haren ahotsa, ordea, ezin isildu. Ezin bihar-etzikoan ere isilduko. Izan ere, herri kulturaren txertatuta dago; halakoxea da. Euskal herriaren irudi horretatik banaezina da.

Txoria libre da, eta Lekeitiotik Baztanera entzuten dira, gitarra urratuaren kexuarekin batera, Mikel Laboaren silaba

aletuak. Beste behin ere, kantuan hasi da: *Hegoak ebaki banizkion...*

Akarregik, ohi bezala, zigarroa piztu du. Bilboko metroan doa, euskararen eguna da eta Mikel Laboaren doinua du lagun, bidaiari izengabeko horiengan zirrara ezezaguna sortzen duena.

Ikusi arte, Akarregi!¶



EGUZKI URTEAGA

Hizkuntza gutxituak ezagupenaren bidean?

2008ko uztailaren 9az geroztik, frantses Konstituzioak hizkuntza gutxituen ezagupen ofizialari ate bat ireki dio. Onartutako emendakinak, Konstituzioaren 75.1. artikulua alegia, dio: «eskualde hizkuntzak Frantziako ondarearen zati bat dira».

- *Aurrekariak*

Puntu horretara nola iritsi garen ulertzeko hainbat aurrekari aipatzea komeni da.

Nahiz eta Hizkuntza Gutxituen Europar Kartaren onarpenaren aurka egon, Nicolas Sarkozyk, Frantziako Errepublikako lehendakariak, hauteskunde kanpainen adierazi zuen lege baten onarpena proposatuko zuela Frantziako hizkuntza gutxituen egoera bermatzeko. Hizkuntza Gutxituen Europar Bulegoari bidalitako gutun batean zioen arazo horrek kultura aniztasuna, hizkuntza batzuk desagertzeko zorian baitzeuden, eta hizkuntza gutxituetako hiztunen norbanako eskubideak ukitzen zituela. «Gaur egun, hiztun naturalen desagerpenarekin, hizkuntza horien familia transmisioa kolokan dago». Testuinguru horretan, «duela zenbait urte, irakaskuntza bide hoberena bezain erabakigarria bilakatu da eskualde hizkuntzak salbatzeko».

Sarkozyk zioen legea ezinbestekoa zela, hizkuntza gutxituak menperatzea funtsezkoa izan zitekeelako lan munduan modu egokian sartzeko. Nahiz eta Europar Kartaren zenbait proposamen frantses Konstituzioaren 2. artikulua aurka joan, beste hainbatek ez zuen inongo arazorik planteatzen.

Orduko hautagaiak zioen lege on bezain eraginkor batek bi irizpide jarraitu behar zituela: batetik, tokiko eta eskualdeko administrazio publikoek geroz eta eginkizun gehiago baldin badauzkate hizkuntza gutxituen irakaskuntza gidatzeko orduan, horrek ez du esan gura Estatuak ez dituenik bere eginbeharrak betetzen, bere eginkizuna baita; eta, bestetik, hizkuntza atzerritar eta gutxituak bereizten baldin badira, horrek ez du inplikatzeko exijentzia maila apalagoa izan behar denik. Hori dela eta, Hezkuntza Ministerioak lortu beharreko maila finkatzea ezinbestekotzat jotzen zuen. Hala ere, Nicolas Sarkozyk begi onez ikusten zuen gurasoek beraien haurrak sail elebidunetan eskolatzeko aukera eduki zezaten.

Horrekin batera, komunikabideek, publikoek bereziki, indar bat egin beharko zuketena hizkuntza gutxituei toki handiago eskaintzeko.

Antzeko hitzak erabili zituen 2007ko martxoaren 9an, Caen-en egin zuen diskurtsoan.

Baina, jakina da hauteskunde kanpainen egiten diren adierazpenak eta promesak aireak eramaten dituela. Kasu honetan, ordea, jarraipen bat eduki dute. Izan ere, 2008ko maiatzaren 7an, frantses gobernuaren ekimenez, Frantses Legebiltzarrean Hizkuntza Gutxituei buruzko eztabaida bat antolatu zen. Bertan, Christine Albanel Kultura Ministroak gogoratu zuen Kontseilu Konstituzionalak Hizkuntza Gutxituen Europar Karta onartzeari uko egin ziola Konstituzioaren 2. artikulua aipatuz. Onartu zuen hizkuntzen eta bereziki hizkuntza gutxituen gaiak ez zuela garrantzi eta toki bera Frantzian bere osagai instituzional eta politikoetan, Villers-Cotterêts-eko Aginduaz geroztik (1539). Azken horrek legebiltzar eta auzitegiak derrigortzen zituen frantsesa erabiltzera. Horrekin batera, Europar Kartaren izenpetzea garestia, aplikaezina eta eraginik gabekoa izango litzateke bere aburuz.

Aitzitik, hizkuntza gutxituak koofizial gisa ezagutu ez arren, posible litzateke komunikabideen, kultura jarduera

eta ekipamenduen, mugaz gaindiko trukaketen, justizia, irakaskuntza eta zerbitzu publikoen arloetan aurrera egitea. Esaterako, Konstituzioak tokiko eta eskualdeko administrazioei ez die debekatzen bere dokumentuak hizkuntza gutxituetara itzultzea. Era berean, hizkuntza gutxituen inguruko irakaskuntza garatzeko aukerak daude. Baina, kasu batean zein bestean, definizio eza da nagusi. Hori dela eta, komeni litzateke legearen bidez kokaleku bat finkatzea berdintasunerako baldintzak bermatzeko.

Hortik gutxira, 2008ko maiatzaren 22an, instituzioen erreformaren lege egitasmoak Legeen Batzordeko UMPko lehendakariak aurkeztutako emendakin bat onartu zuen. Emendakin horrek zera proposatzen zuen: «hizkuntza gutxituak nazioaren ondarearen zati bat dira». Rachida Dati-k (UMP), François Bayrou-k (Modem) eta Jean-Jacques Urvoas-ek (PS) begi onez ikusi zuten, kontsideratzen baitzuten hizkuntza gutxituen ezagupenean aurrerapauso bat ematen zela. Hizkuntza gutxituetako ordezkariak harriduraz ez ezik zuhurtziaz hartu zuten bozka hori: batetik, aurreikusi gabeko bozka baitzen eta, bestetik, ez baitzuen Konstituzioaren 2. artikulua aldatzen, bigarren mailako aldaketa batean geldituz.

Legebiltzarrean onartu ostean, Frantses Akademiak adierazpen publikoak egin zituen hartutako neurria arbuiautz. Bere hitzetan, «duela bost mende, frantses hizkuntzak Frantzia eraikitzeke balio izan du. Ordainsari zuzen baten izeanean, gure Konstituzioak ebidentzia hori ezagutu du: errepublikaren hizkuntza frantsesa da». Hori dela eta, 2008ko maiatzaren 22an diputatuek hartutako neurriak «nazio nortasuna kolokan jartzen du». Emendakin hori erabat onartuko balitz, «administrazioa eta justiziara berdintasunean iristeko herritarrek dauzkaten eskubideak urratuko lituzke». Frantses Akademiak, «bere erabilpen eta distiran, hizkuntza frantsesa zaintzeko mandatua jaso duenez», emendakin hori kentzea eskatzen du.

Esan eta egin. Hain zuzen ere, eztabaida Senatura igarodenean, senatarien gehiengoak Frantses Akademiaren go-

mendioei kasu egitea erabaki zuen emendakina Konstituziotik kenduz. Erabaki horrek hautetsi, elkarte eta aditu askoren erreakzioak eragin zituen, Frantziaren jakobinismoa aipatuz eta Senatuaren kontserbaziorako joera kritikatu. Baina, berriz ere Legebiltzarrean eztabaidatu zenean, legebiltzarkideek Konstituzioan sartu zuten, 75.1. artikuluan jarri arren.

- *Adierazgarria*

Gertakizun horiek agerian uzten dute hizkuntza gutxituek oso gai sentikorra osatzen dutela Frantzian. Izan ere, Espainia nahiko aurreratua bada hizkuntza gutxituen ezagupenean, ez da gauza bera gertatzen Frantzian, non eskualde hizkuntzak jarraian estatu afera bilakatzen diren. Jarrera hori urrundik dator, hizkuntza gutxituak, izan dadila euskara, bretoiera, korsikera ala okzitaniera, frantsesaren etsai gisa ikusiak izan baitira, bere garapenerako oztopo balira bezala. Errepublikak monarkiapean nagusi ziren joerak indartu ditu. Frantsesaren eta hizkuntza gutxituen arteko harreman desorekatua ez konpontzeaz gain, hizkuntza horien erabilpena mugatuz, hizkuntza gutxituen araberako jarrera eta irudi ezkorrak garatu ditu, nazioaren batasunaren eta beharrezkoa zen alfabetizazioaren izenean.

Patois izendapenak, eta horrek daukan karga gutxiesgarriak, frantsesaren nagusitasuna areagotu du hizkuntza nazional bakar bat derrigortuz. Bere eraginkortasuna are eta handiagoa zen zilegitasuna lortzen baitzuen legea erabili gabe. Abbé Grégoire-ren helburua, *patois* deiturikoak sunsitzetaz gain, frantses hizkuntza unibertsalizatzea zen. Errepublikaren eskolak indar itzelak egin arren, ez da bere helburua erabat betetzera iritsi, zeren eskualde askotan elkarreak eta erakundeak borrokatu dira hizkuntza gutxituak ezagupen ofiziala lortu eta bizirik jarrai dezaten. Beraz, Frantziak hizkuntza gutxituak garatzeko politika bati uko egin dio, frantsesaren eta euskararen arteko harreman desorekatua garatzen utziz.

Hala ere, 1990eko hamarkadatik landa, hizkuntza gutxituen aldeko neurriak hartzen hasi dira, ohartu baitira frantsesa ingelesarekiko antzeko egoera batean zegoela. Zentzu horretan, frantses gobernuaren ekimena izateak, Frantziako Legebiltzarrean onartua izateak, Frantses Akademiak eta Senatuak ezezkoa eman arren berriz Konstituzioan sartu izanak, agerian uzten dute pentsamoldeak pixkanaka aldatuz doazela eta duela hogeit hamar urte ezinezkotzat jotzen zena gerta daitekeela. Alderdi Sozialista eta Berdeez gain, zentzoko eta eskuineko alderdiek ere bat egiten dute eraldaketa horrekin, hainbat kasutan aitzindari izanez.

• *Ondorioak*

Hala ere, hizkuntza gutxituak Frantziaren ondare gisa eza-gutu izanak zer aldatuko du hizkuntza horien egoeran? Berez, Konstituzioaren 75.1. artikulua aldatzeak ez die ez ofizialtasunik ez berme juridikorik eskaintzen. Alabaina, hizkuntza gutxituen irakaskuntza, hedapen eta presentziari fabore egin diezaioketen gutxieneko batzuk bermatuko dituen marko bat eskaintzen du. Izan ere, Frantziako Kultura Ministroak aurreratu duen moduan, frantses gobernuaren asmoa 2009. urtean hizkuntza gutxituak babestuko dituen lege bat aurkeztea eta onartzea da. Lege horri esker, irakaskuntza elebiduna, bide seinaleztapen elebiduna, hizkuntza gutxituetako irrati eta telebista programak eta administrazioan zein justizian hizkuntza horiek erabiltzeko aukerak segurtatuak izango lirateke.

Baina, hortik at zer? Kontuan izan behar da, batetik, frantses kultura politikoa pentsaera errepublikarrari lotua dagoela, Estatuak, nazioa eta hizkuntza erabat lotuz, esan nahi baita hizkuntza ukituz gero nazioaren eta ondoren Estatuaren batasuna bera kolokan jartzen dela, eta, bestetik, legea beti errealitatearen atzetik doala. Irakaskuntza eta komunikabide elebidunekin suertatu den moduan, gogorki gudukatu ostean, onartu egin ditu, errealitate bat baitira eta instituzioek nahi ala ez hor daudelako. Zentzu horretan, legeak

errealitatea ezagutzen du, denborarekin bada ere. Horrek zera esan nahi du, alegia, hizkuntza gutxituen eskolak, komunikabideak, erakundeak eta enpresak biderkatzen eta garatzen diren neurrian, goiz ala berandu, instituzio publikoen ezagupena lortzen dutela.

Bestela esanda, erantzuna, maila batean behintzat, eragile pribatuen esku dago, esan nahi baita, Euskal Konfederazioak 2008ko apirilaren 21ean egin duen moduan, hizkuntza gutxituen ezagupen ofizialerako plataforma komun bat sortzeaz gain eta gailu juridiko bat sortzea eskatzearekin batera, hizkuntza politika handinahiak bezain eraginkorrak sortzeko asmoz, ezinbestekoa dela ikustea elkarte, enpresa, fundazio ala herritar bakoitzak zer egin dezakeen, bere mailan eta bere baliabideekin, hizkuntza gutxituen transmisioa, ezagutza eta erabilpena bermatzeko. Bere historian zehar, hori izan da hizkuntza gutxituen indarra, hau da, norberaren ekimenean oinarritzea eta ez beharbada inoiz helduko ez den iraultza bat itxarotean.¶



IÑAKI ZABALETA URKIOLA

Bat bitan beti

Gogoangarria eta aldi berean kezkarria izan da 2008 urtekoa euskal kulturarentzat. Beste herri txiki eta txikitu batzuetan bezala, euskaldunen banderizo-zaletasuna, bat bitan gutxienez banatu nahia, ez dirudi inoiz erraz galduko denik.

Abenduan hamar urte bete zituen Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta ospakizunaren jaialdia *Bilbao Exhibition Centre*-n egin zuen, abenduaren 13an. Seguruenik, hiria eta tokia hautatzean esanahi sinbolikoak ere go-goan izango zituzten. Euskararen «oreka hauskorra» adierazteko zirkuko ikuskizunen erak erabili zituzten bertan eta ongi asmatu zuten ideia horrekin: batetik, maiz, pailazo zirikatzailer modura ibili behar izaten baitu euskal hiztun askok saltoki eta zerbitzuguneetan euskaraz bizi nahian, eta, bestetik, euskararen egoera sozial eta politikoa alanbre gaineko ekilibristaren oreka bezain labainkorra baita.

Kontseiluaren izenean Xabier Mendiguren Bereziartuk irakurritako mezuak are hobeki islatu zituen Euskara(dun) Herriaren gaurko egoera eta etorkizunerako erronkak eta eginbeharrak. Gaudenetik eta goazenetik baino «pauso bat harago» joan behar dugu hiztunen eta hizkuntzaren garapen iraunkor eta zabala lortzeko. Bultzada berria. 1998an, Kontseiluak XXI. menderako akordioa, plan estrategikoa eta konpromisoa eskatu zituen, «normalizazioa ondo ez zihoalako». Orain, hamar urte beranduago, konpromisoa eskatu du berriro ere, gizarteko maila guztien eta norbanakoen konpromiso aktiboagoa, «euskaraz bizitzeko dekalogo» gauza-

tu dezagun eta denok euskaraz bizitzeko gai izan gaitezen (gero bakoitzak erabakiko du berea).

Nire ustez, mende berri honen hasierako urte hauetarako Kontseiluaren eskakizunak funtsezkoak dira eta arazoaren muin-muinean jo dute. Euskararena, poz-bideaz gain, arazoa ere bai baitugu, handia gainera. Dekalogo hori bost atletan laburbil genezake: hezkuntzan, ikasleak eta ikasketak egiaz euskalduntzea; herri-aginteetan (gobernu, aldundi, udal), euskararen saila, bereizia, gobernu-egituraren gailurrean kokatzea, erabaki estrategikoa izan baitaiteke hizkuntza-politika indartsu bezain integratzailea gauzatzeko, administrazioa euskalduntzeko eta euskararako aurrekontu egokiak lortzeko; alor sozioekonomikoa eta jende heldua euskalduntzea; hedabideetan euskara-kuotak ezartzea; eta gaztelaniari aitortzen zaion ezagutu-beharrezkotasuna euskarari ere aitortzea Euskal Herrian, horren berezko eta lehenatasunezko hizkuntza izateko eskubidea duelako.

Milaka jende eta «politika arloko aurpegi ezagun ugari bildu ziren BEC-en» (*Berria*, 2008-12-14). Zerrenda arretaz irakurri eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarien faltaz konturatu nintzen. Ez zen joan Miren Azkarate sailburu eta bozerra mailea, ez zen joan Patxi Baztarrika hizkuntzarako sailburuordea, gonbidatuta zeuden arren (diru-laguntza eman zieten, egia da, eta HPSko ordezkari bat ere egon zen). Zergatik?

Gogora etorri zitzaidan, *Euskaldunon Egunkaria* sortzean Donostian egin genuen jaialdi eder eta zabalera ere ez zela Joseba Arregi orduko Kultura sailburua etorri, baina pozik aski ikusi nuela *El Mundo del País Vasco* egunkari erdaldu-naren inaugurazio ekitaldian, Bilboko Boluetan.

Bat bitan, gutxienez, zoritxarrez. Herri txiki eta txikitueta-ko lehia ahigarriak. Nire ustean, Eusko Jaurlaritzako Kultura saileko arduradunek, urte askoan, ez dute jakin euskalgintzarekin lan egiten, euskararen gizarte-erakundeekin elkarlana osatzen, beharrezko oreka mantentzen. Ezin da egia izan, baina itxura du suminduraz daudela euskarazko he-

rri-mugimendu nagusien indar eta ekimenaren aurrean eta har batek ez diela sosegurik ematen. Zein da har hori?

Eusko Alderdi Jeltzalearen eta garai bateko Euskadiko Ezkerraren fobiak eta errezeloak beti agertzen dira «euskalgintza ofizialaren» ekimenen aurrean; lehen EKBren eta orain Kontseiluaren inguruan bildua, neurri batean. *Euskaldunon Egunkaria* sortzen ibili ginenean, gogoz ahalegindu ziren egunkari ofizial/publiko bat atontzen (herrialde komunistetako eredu txarra jarraituz). Azken urte hauetan, Kontseiluak arrakastatsu sortu eta gizarteratu dituen tresna biren aurrean eta ondoren (Hizkuntza Eskubideen Behatokia, Bai Euskarari Ziurtagiria), franko ondoren, Azkaratek eta Baztarrikak beste bi berdintsu muntatu dituzte (Elebide, LanHitz); bigarrena, azpikontrataturako EUSKALIT enpresa pribatuaren bitartez, gainera. Kultura saileko arduradunek ezin al zezaketen hitz egin, auzolandu, adostu, hitzartu Kontseilukoekin, EAerako behintzat, jadanik indarrean zeuden bi lanabes horien inguruan?

Ez dut zalantzan jarri ere egiten, Miren Azkaratek, Patxi Baztarrikak eta beren saileko kideek ahalegin guztiak egiten dituztela euskara aurreratzeko eta indarberritzeko, eta horretarako behar diren sosak herri-ekimenari ahalik eta zuzenen zabaltzen dizkiotela. Jende askok dakigu, halaber, pertsona dohatsu eta beharginak direla. Ez nuke ukatuko, halaber, jarrera lehiakor hori izateko, balitz, euskalgintzak ere bere erruak dituela. Edozein ez baitan alde guztiak izaten baitituzte erantzukizunak. Ni beste zerbaitez ari naiz, Kultura saileko gaitz historiko eta errepikatuaz, euskalgintza deitutako sektore ekilearen gaineko errezelo eta azpi-azpiko areriotasuna lirudikeenaz, gehiegitan ideologikoki aitzakitua edo errotua («ezker abertzalea dago atzetik»; «ETA ez dute kritikatzeko»). Euskalgintzak aldioro egin behar al du demokratikotasunaren aitortza?

EJko Kultura sailak «euskalgintza ofizialarekin» izandako gorabeherak areagotu egin dira 2008an. Otsailaren 21ean, Andoaingo Martin Ugalde Parkean *Euskaldunon Egunkaria*

itxiaren eta auzipetuen alde egindako elkarretaratzearen biharamunean, Miren Azkaratek Euskadi Irratian adierazi zuen *Berria* egunkaria ez zela zabala eta ez zuela sorrera modu egokienean izan. Egun gutxira, estrategia adostu baten bigarren katebegiaren antzera, Patxi Baztarrikak, artikulu gogor eta bete bezain zintzoan (barrengoa azaleratzearen zentzuan), lehenik egunkari itxiari eta bertako langile eta auzipetuei elkartasun osoa adierazi zien; bigarren, igitairen kolpe motz eta lerroaren antzera, «bereziki urruti sentitzen naiz, guztiz urruti alegia, euskara eta euskalgintza ondare propioztat erabili eta lohitzeko joera nabarmena duen ETArekiko jarrera akritikoan tematzen direnengandik. *Euskaldunon Egunkaria* bere garaian tematu zen bezala. *Berria* gaur tematzen den bezala» aldarrikatu zuen; eta, azkenik, euskalgintzaren aniztasuna, egiazkoa, nabarmendu zuen, «unibertso bat osatzen dugu euskaltzaleok, ez sekta bat. Eta unibertsoetan, sektetan ez bezala, ezinbestekoa da aniztasuna» (Azpeitiko Euskara Patronatua, erabili.com, «Desadostasunak bizi gaituelako nauzue zuekin», 2008-02-27).

Joxan Lizarribar EKTko lehendakariak hurrengo egunean erantzun zion «zein da independenteagoa eta pluralagoa» *Berria* egunkaria baino? galderarekin. «*Berriak* beti egiten du lan bere orrietan herri honetako adierazpide politiko eta sozial orok isla izan dezan» baieztatu eta «larria da kargu publikoak erabiltzea gizarte ekimenetik abiatutako proiektuak kolokan jartzeko» salatu zuen.

Neke handia da euskalgintza ofizialaren jarduna beti auzipean edukitzea, espainiar estatuan ezarritako demokratikotasunaren epaiketapean, ETaren indarkeriaren eta terrorismoaren aurkako betiereko gaitzespen-eskaripean. Ez Azkaratek eta ez Baztarrikak ez baitiote eskatu *El Diario Vasco* eta *El Correo*-ko arduradunei (euskalgintzaren aldeko jarduerak ere egiten dituztenez) aitortza eta gaitzespena egin dezaten, bi egunkari horiek frankismoa, frankismoko edo frankismo ondoko heriotzak, torturak eta horien egileak babesteagatik, zuritzeagatik (gaur ere badira Guantanamo

txikiak espainiar estatuan). Hedabide horiek eta beren arduradunek inoiz ez dute kondena hori egin eta horiei ez diete deus eskatzen. Historiako kontu zaharrak direla esateak ez du inor ezertatik libratzen, historia horren biktimak eta biktima-egileak ere gaur eta hemen baitaude oraindik.

Kultura sailekoen liskarrak ez dira euskalgintza ofizialarekin bakarrik izan. ELA eta LAB ez ziren joan P. Baztarrikak deitutako Euskara Normalizatzeko IV. Plangintzaldiaren bilerara, «antzerki hutsa» zela iritziz (*Berría*, 2008-07-30), «ekimenean parte hartzeko aukerarik ez dietelako eman». Bilera eta plangintzaldi horretan administrazioaren euskalduntzea zen gaia.

Egoera ahigarri honen azken ikonoa *Ukan* birusa izan daiteke. Kaleko jende gehienak «birus» hitza entzutean zerbait txarra, osasunerako kaltegarria dela pentsatzen du berehala, eta, hala ere, harridurarako, Eusko Jaurlaritzak birus bat jarri du euskararen ikur modura, horren «izurritea» gizartean zabaltzeko. Seguru aski, deigarri eta paradoxikoa izatea lortu du kanpainak; prentsaurrekoek, ekitaldi publikoek eta pertsona ezagun batzuen babesak eman diote tokia hedabideetan, baina zein da azpi-azpian, esanahiaren bigarren/beheko mailan geratu den konnotazioa? Euskara birus bat dela, *ergo*, osasunerako kaltegarria. Ez dut uste egokia denik publizitate-adituen sormenaren esku uztea gizarteko gai delikatu bat, izan ere, publizitatearen trastetokia ideia eta kanpaina malerusgarriz beteta baitago.

2008ko beste gai garrantzitsu bat Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak bideratu duen gogoeta-prozesua izan da, «XXI. Mende Hasierarako Hizkuntza Politikaren Oinarriak» gaiaren inguruan. Abiako txostena izen bereko batzorde luze baten altzoan sortutako zazpi kideko talde batek prestatu du. Ondoren, hainbat batzordekidek ekarpen interesgarriak egin dizkiote eta, urtearen hondarrean, gizarteari zabaldu zaio iritziak emateko bidea (http://blog.euskara21.euskadi.net/index.php/hizkuntza_aukeratu internet-helbidea). Zabal jokatatu nahi dute P. Baztarrikak eta M. Azkaratek.

Oinarritzko txostena aztertu ondoren, bere edukia lerro labur batzuetan bildu beharko banu, nioke Eusko Jaurlaritzari XXI. mende hasierarako proposatzen dizkion hizkuntz politikaren oinarriak jadanik hogeigarren mendean indarrean egon direnak direla eta, gauza pare bat kenduta, ez dutela deus nabarmen berririk ekartzen (etorkinen gaia izan ezik). Zentzuzko eta egiazko gauza asko esaten dira euskara ederrean idatzitako txostenean (batzuk lar errepi-katuak; bi esku desberdinek idatzi eta, ondoren, behar hainbateko edizio-lana egin gabe, atalak batu balituzte bezala), eta bat nator maiz hor jarritakoekin, baina jadanik ezagunak dira eta milatan esanak eta onartuak daude gehienak.

Han esaten dena alor gutxi batzuetara biltzen badugu, alde batetik, kritika eta autokritika egin behar den grinaz, euskararen garapenaren azken hogeita bost urteotako argi-ilunak nabarmentzen dira (eskolaren indar eta ahuleziak euskalduntze-prozesuan; euskararen erabileraren moteltzea; kultur-ekoizpenaren ugaltzea; eta antzeko analisi ezagun eta orokorrak); bestetik, HP ausartago eta indartsuago *ezin egiteko* mugak aipatzean, «progresiboa» eta neurtua baizik, behin eta berriz diote errealitatea eta gizartea direla muga, boluntarismoak ez duela tokirik, gizarte demokratikoan garrantzitsu baina oso lauso eta ilun diren kontzeptuak jarri behar direla HPren ardatzean (kotsentsua, adostasuna, zuhurtasuna, euskara denona, egitura legala, gizartea protagonista, zubigintza, ondo pentsatu gauzak...).

Ondorioen atala izan beharko lukeen «HPren zimentarriak eta erronkak» izeneko zatian, aurreko orrialdeetan esandakoa berresan baino ez da egiten: herritarren borondata eta demokraziaren printzipioetara egokitu behar dela HP, atxikimendua behar dela, Euskararen Legeaz gogoe-ta egin behar dela (baina ez aldatu), euskararen auzia bizikidetasunaren arazoa dela, errealitatea dela muga, eleaniztasuna behar dela, gizartearen kohesioa, euskaratik urrun dauden herritarrak erakartzea, «norbanakoaren borondatea izan behar dela oinarri», herri-erakundeek izan behar dute-

la aitzindaritzza eta gizarteak protagonismoa... Bide batez, hemerotekara jo eta 2006ko urriaren 5ean, erabili.com webguneko Berri-Berriak sailean, P. Baztarrikaren «Baztarrika Euskararen Legea aldatzearen aurka» artikuluan antzeko gauza batzuk esaten dira.

Batzordekideek egindako ekarpenek (T. Uribetxebarria, J. L. Lizundia, J. Mendizabal, J. I. Etxezarreta, M. Mujika, L. Mees, J. Arregi, M. Zalbide, A. Lertxundi, besteak beste) gogoetarako bide oparoa eman dute eta seguru naiz oinarrizko txostena, agian ahul samarra normalizazioaren etorkizunera begira, zinez aberastuko dutela, nahiz eta kasuren batean, Joseba Arregirenean adibidez, ekarpenaren zati handi samarra erretorika akademiko sinple eta sinplista baino ez izan (testuinguru horretan Michael Walzer estatubatuar politika-filosofo ezaguna aipatzea eskubideen unibertsaltasunaren ezaugarriez jarduteko, norberaren banitate akademikoa puzteko balio lezake gehienbat).

Amaitzeko, euskararen garapen eta normalizazioaren aldeko jardueran bi ikuspegi eta bi estrategia desberdin atzematen dira. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren dekalogoak eta planek ausardia, bultzada eta jauzi kualitativoa planteatzen dute, kontziente izanik herri-aginteen partaidetzarik gabe ezin direla aurrera eraman. Aldiz, Eusko Jaurlaritzaren eskarira eta beharretara egokitutako «XXI. Mende Hasierarako Hizkuntza Politikaren Oinarriak» txostenak prozesu progresibo, neurtu, mugatu, tentuzkoa jarzen du zimentarri modura. Lehenak gizartearen aurrean gidaritzza bilatzen du, bigarrenak gizartearen jarrailaritzza. Bi batari begira.¶

G A I A K



85 PATXI SALABERRI MUÑOA
Bologna prozesatzen

Bologna prozesatzen

PATXI SALABERRI MUÑOA

EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko irakaslea

0. Neurozientziek diotena egia bada, hots, predikzioak egiteko gaitasuna dela inteligentziaren oinarria, geure adimena egiaztatzeko aukera izango dugu ondoko urteotan, hain zuzen ere, predikzio-lana baita Bolognari buruz egun egin daitekeen gauza bakarra*. Hain izan da sortzez nabarmena haren *zehaztugabetasuna*¹, ezen Bologna Planaren erabateko ezarpenaren atarian gauden honetan balorazio objektiboa egiten saiatu diren gehienak² nekez joan baitira «ziurgabetasunak», «zalantzak», «arriskuak» eta «gerta litekeenaren beldurra» adieraztetik haratago³.

Haurgintza aurreko teknologiak huts egin izan baligu bezala, une honetan ezin jakin bide dezakegu neska ala mutila izango den jaioko dena. Lasai egoteko moduko egoera, edonola ere: behintzat badakigu izorra garela.

Eta badakigu, orobat —eta jasota gera bedi baieztapena jere miastarren malkorik ez balu legez—, Bolognak aitaponteko dituen kapitalak eta merkatu-lobbyek ez dutela inoren *prediktorrik* maite, predikziorik errealistenak, hau da, etorkizun laburrean zinez gauza daitekeenaren hipotesi zehatzak —esplizituki ezagutzera ematen ez den horren miatze-lanean

oinarrituak, alegia—, ageriegia utzi baitezake kontzeptu eta irizpide orokorren atzean haiek beren baitarako dagoeneko irudikaturik duten panorama. Izaera berekoa unibertsitatean zein bestelako arloetan, edonola ere: haien interesetarako egoki(tu)a, praktikoa, erabilgarria, malgua, errentagarria, erreflexio otzanekoa eta, jakina, haien eraikuntza ekonomikoa eta hura sustatzen duten oinarriak zalantzan jar litzaketen predikziotarako irendua.

Erako lurra, edozein modutan, satorkumearentzat ere. Nahiz igarle agertzeko itsuegia izan...

1. Geroago handi-txiki guztiek sinatua (29 estatuk lehen-dabizi; ia 50ek gaur egun), Bolognako Aldarrikapena Europako lau estatu ekonomikoki erraldoienek planteatutako beharrei erantzutera etorri zen 1999an. Alemania, Frantzia, Italia eta Erresuma Batuenaren ekimenez sortua, Bolognako Konbergentzi Prozesu bezala ezagutzen denak funtsean unibertsitate-titulatuaren merkatu bateratua eta irekia sortzea zuen ageriko xede.

Kronika ofizialek beste modu batez kontatuko duten arren, unibertsitateak zituen berrikuntza-premiak esparru akademikotik at erabaki ziren, egoeraren diagnostikoak eta ondoko konponbideak ohiko estamentu politiko-ekonomikoen aterpean eman zirelarik. Diagnostikoaren hariak (ez beti desbideratuak) ez zuten zalantzarik utzi ondoko medizinak aplikatzeko orduan: zahar eta artritikoak geratzeaz gainera, Europako unibertsitateetan alferrikako *jakituria* gehiegi sortzen eta transmititzen zen, mundu aldakor hone-tan berehala zaharkitua gera daitekeena, gainera. Are gehiago: lan-merkatutarako praktikoegia ez zen prestakuntza omen zen eskaintzen zena; ondorioz, tituluak enpresetan hasten ziren unean ekin behar izaten zioten benetako prestakuntza errealarri, horrek enpresa eta estatuari zekarzkion gailuzuekin. Bestalde, *Gizarteak* (irakur bedi «ekonomi lobby ahalguztidunen begiradapeko merkatuek») hango eta hemengo ikerkuntzaren, patenteen eta titulatuaren beharra

du etengabe, ukrainiarrena zein portugaldarrena, finlandiarrena zein zipretarrena, eta ezin ditu estatuen arteko desberdintasunak mugikortasunerako eragozpen izan.

Horri guztiari, noski, estatuen ekonomi ikusmiran aspaldidanik zegoen faktorea erantsi behar zaio: unibertsitatean ikasteko eskubidearen orokortzeak (bigarren hezkuntzaren luzapen natural bihurtzen ari baita) areagotu baino ez du egiten arka publikoek egunetik egunera onerosoago sentitzen duten unibertsitate publikoen finantziazioa, batik bat haietatik egresatutakoek gero nagusiki enpresa pribatuen onerako izan behar dutenean.

Diagnostiko-lerro hauen aurrean, Bolognak aski zuzendua zuen eginkizuna.

Unibertsitate-sistemaren «egokitzapena», beraz, mugarik gabeko *Gizarteak* (irakur bedi...) behar dituen profesionalen taxuzko harrobia izatera bideratua da.

2. Beste nonbaiten zehatzago agertuko den historiari ekiteko asmorik ez badugu ere⁴, gogoratu behar da Goi Hezkuntzako Europar Espazioaren sorrera izan zela egokitzapen-premia horren lehendabiziko erabaki sendoa eta, ikasle-irakasle-ikertzaileentzat ere, lehen begirada inozoan berderen, erakargarria.

Espazio komunaren ezarpenak ezinbesteko zuen barne-antolamenduaren diseinu berria ere (ikasketa-plan guztien moldaketa barne) sei bat punturen inguruan harilkatua eta itundua geratu zen.

Teknikoki eta *marketingaren* aldetik, egokia proposamena: Europako estatuetan konparagarria den titulazio-sistema baten ezarpena, bi ziklotan banatua⁵ eta kreditu-sistema komun batez ebaluatzeko modukoa, esparru guztian kalitate eta metodologi maila berdinekoa, eta ikasketa-planetan europar dimentsioa bereziki azpimarratuko lukeena bertako biztanleen okupazio-maila errazteko. Azken osagarri gisara, unibertsitate-estamentu (ikasle-irakasle-ikertzaile) guztien mugikortasuna bultzatuko duela dio itunak.

Agerikoa da produktua ongi zabaltzeko «kontzeptuak» baino ez direla hitzarmenean erakusten.

Hortik, agian, hainbat Bolognazaleen optimismoa, guztia-ri baiteritzote oportunitate, aukera, aldaketa, berrikuntza teknologiko eta pedagogiko, bezeroarekiko (barka! ikaslearekiko) konpromiso, lan-etorkizunerako erabateko prestakuntza, gizarte-agenteekiko elkarrekintza, irakasle, ikasle eta proiektu baliagarrien kontsiderazio, aurrekontuen areagotze... Dena, gainera, «hautespen naturalak» eman ohi duen malgutasun printzipioaren arabera darwinizatua.

Horrela, letra gutxirekin eta demagogiaren aparretan ito gabe, Europako unibertsitate publikoan ere jakin izan du jorkamolde neoliberalak eskua sartzen eta bere interesen heineko eraikuntza moldatzen.

Norabidea da inportanteena. Estatu bakoitzari egokitu zaio gero ondoko zehaztapan-lana. Eta saltzekoa.

3. Planaren hedapen-arrakastarako faktore egokitzat jokatzen du lehendik interesatuki zabaldua zen «iritzi» edo, nahia-go bada, «konstatazio objektibo» batek, zeinak argi «erakusten» baitu *jakituria* eta *zientzia huts* bezala ezagutzen diren transmisioa koste gehiegikoa dela herri-altxorarentzat, guztiok ikusmiran omen dugun lan-merkaturako alferrikakoa eta, azkenik, ez duela behar besteko errentabilitaterik sortzen, ez behintzat *Gizarteak* —horrela, letra larriz berriro ere— espero duenari erantzuteko.

Ez da aipatzen —baina «hautemate» neoliberalen zakuto berean doa— bigarren «konbikzio» bat ere, teknologia eta zientzia aplikatuak ez diren guztien aurkako suspikazia maila areagotzen duena, hots, «beste» zientziek lanaren eta errentabilitate ekonomikoaren munduarekiko jende —*kritiko* esatea lar orokortzea liteke— *desadaptatu* gehiegi sortzen duela dioena. Jakintza-arloaren eta prestakuntza-motaren ondorio zuzena, nonbait.

Besterik aldarrikatu arren, ekonomi mundu neoliberalak ez du «beste» horietako askoren lantze-gune berezi diren pen-

tsamendu kritikoaren eta sentsibilitate sozialaren premiarik. Jakina, derrigorrezko kausalitatez, arlo horiexen iraupena da, hain zuzen, ikasketa-plan guztietan zalantza-maila altuena sortzen segitzen duena.

Izan ere, besterik da *Gizarteak* behar omen duena: batetik, kudeatzaile eraginkorrak, sistemari egokituak eta sistemara adaptatuak, denetarako eta denetan malguak, baita printzipio eta konbikziotan ere. Eta behar du, bestetik, lan-eskua, prestatua, aldakorra, denetarikoa, lan-ordu luzeetara ohitua eta ikusmiran errentabilitate hutsa izatera egina⁶.

Orain arte Lanbide Heziketak errazten zuen lan-esku espezializatu hori, aurrerantzean unibertsitateak⁷ eskainiko du, hori bai, litezkeen profesionalen lan-adina atzeratuz.

4. USamerikarrek hogeita bat urte bete arte gazteei edari alkoholodunak debekatzeko darabilten haur-trataeraren eskema bertsua luzatu nahi bide du Bolognak ere, gauza publikoan, Europako presidentek eta ordezkari politiko guztiak aukeratzeko adina onarturik dutenean unibertsitatean hasten diren ikasleekin. Kode penalean ez bezala, hamazortzi urtetik gorako ikasleak adingabeko bailiran tratatzen dituzte ikasketak eta ebaluazio motak (guri-guriak guztiak) eskaintzen hasi orduko.

Sozialki bizitza-proiektu aske bat burutzeko ahalmena onartzen zaion ikasleak, *Gradua* lortzen igaro beharko dituen lau urteetan printzipioz Bigarren Hezkuntzari edota Lanbide Heziketari berari legokiekeen prestakuntza-maila gisakoa lortuko du. Eta hori, baldin eta eguneko zortzi bat orduko⁸ lan tutorizatua (uler bedi «tutore» hitza zuhaitzak zuzen hazteko erabiltzen diren tresnen adieran) betetzeko gai bada⁹. Ez da zalantzarik, hala eta guztiz ere, ikasgaiak gainditzeko planteatuko zaion jarraikako ebaluazio modukoak ikaslea aprobatazea bilatuko duela, unibertsitateek, ekonomia printzipioez oharturik, betidanik izan baitute aratz karreraren kostea areagotu besterik ez dutela egiten suspentsoek¹⁰.

Edonola ere, Gradu-ikasketetan «edukiak» bigarren mailara jaitsiko dira, eta «gaitasun-trebetasunek» osatuko dute bolognar formakuntza praktikoaren bihotza, baita, antza denez, kontu honetarako zailtasun bereziak aurkeztu ohi dituzten jakintza-arlo humanistikoetan ere.

Training-eskema horren bidez lortzen omen den profesional arduratsu eta lehiakorra izatera iristeko egokituko zaion lan-ordutegiarekin, bestalde, Unibertsitateak lan-mundutik urrun mantenduko du gazte-geruza zabal bat, lau bat urtez *graduatu*en kasuan¹¹ eta sei batez *masterizatu*enean.

Ikasle horiek lan-merkatutik erabat kanpo egonik, begi bistakoa da ezin izango direla famili ekonomia asko izan (orain arte bezainbeste, bai?) ikasketen zama¹² jasan ahalko dutenak, ez eta karrera ondoko ordainketa eskatzen duten kreditu-beketan enbarka daitezkeenak ere¹³. Eta ez dirudi *gradu*ko ikasketa generalisten ondokoetan matrikulatzeko orduan zailtasun ekonomikoak arinduko direnik.

Bologna errealari dagoeneko leporatzen zaion elitismoaren kalifikatiboa abiapuntu hauotan oinarritzen da. Zeren eta inork ez baitu zalantzarik horri guztiari matrikula-tasen egokitzapena erantsi beharko zaienik¹⁴.

Jakina, ikasleek ordainduko dutena unibertsitateetara zerbitzuen truke bideratuko den parte bat baino ez da izango. Alegia, horraino baino ez da iritsiko diru-iturri horren eragina. Izan ere, «bakailaoa» zatituko duten finantzabideak —hots, ikasleenak ez bezala, barneko politika eragin eta baldintzatu-ko dutenak— arka publikoak eta, bereziki, unibertsitate-eskaintzak diseinatzeko «premia errealak» aurreikusi eta aurreikusiko dituen sektore ekonomikoa izango dira. Azken honen aurrekontuetatik aurreratuko da finantziazorik erabakitzaileena, eta, esan gabe doa, hark markatutakoen ildotik ulertu eta burutu beharko dira ikerkuntza-politikak eta ikasketa-planak.

Nolanahi ere, ez da hau egun batetik bestera azaleratu eta atzemango den kontua. Pentsatzekoa da aipatu ezarpen-prozesua presa lar gabe gauzatuko dela filosofi aldaketa erakus-

ten duten ataletan, jaki berriak digeritzeko denbora izan dadin. Taseen igoera gordinak, esaterako, ez dira bat-batean gertatuko, are gutxiago gobernuan daudenak sozialki progresistatzat edo agertu nahi badute euren burua¹⁵.

Lehenago atzemango da —atzemana da jadanik— logikoa-go eta neutroagotzat aurkezten ari den enpresa-lobbyen infiltrazioa unibertsitateetan.

Ez hain azkar agian, baina laster asko edonola ere, nabarmena izango da euskara bezalako hizkuntza gutxituen tratuera berria, graduetan ez bezala, masterretan ez baita *sentimentalismo* antiekonomiko gehiegirik onetsiko. Gaztelania eta ingelesa izango ditu —beste predikzio bat, ez originalia berau ere— Euskal Herriko Unibertsitateak egiazko hizkuntza.

5. Hamaika bider iradoki zaigu oinarri eta agintari dugun ekonomia neoliberalak ez duela ondorio teknologikorik gabeko ezagutzarik nahi. Esanguratsuak dira, esaterako, Zientzia eta Berrikuntzarako Ministroa den Cristina Garmendiak berriki adierazitakoak: «Las humanidades tienen que implicarse mucho más de lo que están en el campo científico y tecnológico»¹⁶. *Inplikazio* delako hori ez da norabide bakarrekoa eta, begi bistan dago, badu azpimarratu beharreko alderdirik.

Ildo horretan, espainiar unibertsitateak erabili behar izaten dituen aurrekontuek Barne Produktu Gordinaren %1,2ko maila inoiz gaintu ez dutenean, harrigarria bezain bitxia egiten da Bolognako uztaipeko gobernuak (ia 50 estatuko Europa erraldoia!) hain biziki eta modu bateratuan interesatuak ikustea gutxienez aurrekontuen bikoizketa eskatuko dien unibertsitate-hezkuntzaz. Zerbaitek koadratuko ez bazu bezala!¹⁷

Jakina, koadratura unibertsitateen finantziazioaren sekretua urratzean atzematen da, ikasleen poltsikoetatik aterako den dirutzaz gainera («ezer nahi duenak, ordain beza» da unibertsitate-merkaturako leloa ere), bide pribatua tarteka-

tzen baita eskema orokorraren baitan. Bide pribatua esan dugu, baina, nahiago bada, enpresa pribatuaren mundua esan liteke, edo, kategoria abstraktuagoa dirudiena erabili nahi izanez gero, onargarri liteke, ziur asko, «merkatu» hitza ere¹⁸.

Horrek, ezaguna da, ondorio larriak izango ditu ikerkuntzak hartuko duen norabidean eta baliagarri (ez) diren ikasketen eta arloen kasuan¹⁹, merkatuaren mundua ez baita altruismoagatik edota elkartasun-espirtuagatik karakterizatzen.

Guztiarekin, unibertsitate-sistemaren egituran atzemango da, gorago adierazi bezala, lehen efektu ikusgarria. Izan ere, unibertsitatearen kudeaketa enpresa-munduak komandaturatzen izango da aurrerantzean. Enpresa-munduak, hortaz, presentzia unibertsitario zuzena eta erabakigarria izango du arlo garrantzitsu guztietan²⁰: Gizarte Kontseiluetan²¹, masterrren diseinuetan eta izenetan²², etab.

«Gizarte-kontrol» horrezaz gainera, enpresa-munduak bere gain hartuko duen finantziario inbertsio modura egina geratuko da, hau da, geroago patente, teknologia eta lan-esku espezializatu malgu eta, agian, merkearen bitartez errentabilizatu ahal izango duen inbertsio modura.

Are gehiago, akuilu eran eta bere borondate onaren adierazgarri gisa, Bolognak aurreikusitako BPGaren %3ra hurbil daitezkeen kosteak estatuekin konpartitzeko ahalegina egingo du enpresa-munduak, ziurtaturik baitauka orain arteko ehuneko bederen arka publikoetatik aterako dela.

Horrela gertatuz gero, iritsiak izango ginateke ez batzuk unibertsitatearen erabateko pribatizazioa deitzen duten horretara, baizik eta, ekimen pribaturako are interesgarriagoa den pribatizazio mota batera, non *de facto* pribatizatzeko bidean barrena doan unibertsitatearen aurrekontuen zati handi bat fondo publikoekin ordainduko litzatekeen.

Honainoko hauek, halere, izozmendiaren zati bat baino ez dira.

6. Aipatu besterik ez dugu egin Europako estatuek (Espainiak eta Frantziak, guri dagokigunez) hain sutuki babes-

ten dituzten hizkuntza ez hegemonikoen arazoa, probableki litekeena, noski, predikziotan ari baikara.

Edonork daki ez ingelesa gabe, baina bai euskara gabe, lasai asko bizi daitekeela gero eta globalizatuago dugun mundu honetan. Are lasaiago, eta ez da erretorika, unibertsitate-sistemaren hariak goitik behera bideratuko dituen enpresa-munduan.

Guztiok dakiguna gordinago esanda, ekonomi esparruan eragozpen huts dira hizkuntza txikiak, mugak besterik ez baitute jartzen litezkeen bezeroen artean. Eta Bolognak hasieratik definitua du eragozpenik gabeko mugikortasuna duela bultzatu beharreko irizpide garrantzitsuenetako.

Zertarako, bada, mugikortasuna errazten ez duen atal batean inbertitu? Ez irakasleen prestakuntza (haien denbora ere preziatua da horretan eta horretarako xahutzeko), ez ikasleena (haien formakuntza teoriko-praktikoaren kaltetan lihoazke euskara teknikoa ikasten aritzeari eskainitako baliabideak eta denbora), ez aldizkariak eta materiala sortzeko ahaleginak..., txori bolognarrak soberan ditu horrelako hegala astunak.

Joerak ikusita, eta erostaka hasteko bokaziorik ez badugu ere, euskara ikasketa- eta ikerkuntza-hizkuntzatzat sustatzeko egin dezatena (ezer egiten bada!) beharrezkoa ez den zerga bat bezala hartuko da garbi asko. Zahar, eder, folkloriko, etnologiko, nazional... nahi dena, baina betiere merkatuak nahitaezko ez duen zerbait irauarazteko zerga huts bezala.

Inpresio hori dagoeneko agertu da orain arte UPVn diseinatutako ikastaroen irakurketa desberdinetan. Graduondokoetan, esaterako, testimoniale da Euskal Herriko Unibertsitateak euskaraz eskaintzen duena. Areago: tradizionalki beren ikerlana euskararen inguruan burutzen dituzten hiruzpalau arloetara mugatzen da euskararen presentzia oro har (euskal filologia, euskara teknikoa eta filosofia-pedagogiako arloren bat, orain arte hain zuzen ere enpresa-munduari gutxien interesatu izan zaizkion esparruetakoak). Eta horren aurrekaria, azken ikasturtean eskaini izan diren master eta graduondokoetan ikus dezake interesa izan dezanak²³.

7. Ez da maizegi eztabaidatu eta ez da oraindik argitu nola ukituko duen Bolognak irakasleria eta nola utziko duen haren eginkizuna. Besteak beste, mahairatu eta zehaztu ga-be dago (Planaren ezarpen-prozesuak eskatzen duen zuhurtzia ala inprobisazioaren kultura?) irakasleen lan-zama berria eta haren banaketa eta balorazioa ziklo desberdinetan (klaseak, tutorizazioak, ikerkuntza, kudeaketa...).

Ildo horretan, egun sumatu baino ez da egiten nondik joan daitezkeen erabakiak: artritisa kronifikatuago duten irakasleen jubilazioa, gaixotasuna zeharo finkatuta ez dutenen doikuntza pedagogikoa, askoz koste gutxiagoko (hirurtekorik, bosturtekorik eta neotramorik ez) eta hizkuntza eta informatika gehiago dakiten irakasle gazte malguen kontratazioa, etab.

Egia da, edonola ere, aldatu egingo zaizkiola hainbat eta hainbat perspektiba egungo irakasleari eta oraingoz ezagunegi ez dituen esparruetaraino eramana izango dela.

Irakasleen estatusari nolabaiteko argitzapenak etor dakizkioke hortik, ez beti onartzeko atseginak ziurrenik, baina interesgarriak betiere, irakaslea «behingoz» ohar dadin unibertsitatearekin, ikasleekin eta gizartearekin dituen eginkizunez eta betebeharez, irakaskuntza arloan bezainbeste ikerkuntzarenean ere.

Hori aitzakiatzat, ez litzateke harritzekoa unibertsitatean enpresetako produkzio eskema finakoak agertzen hastea: presentziazko ordutegi luzeagoak eta kontrolatuagoak, ospetsu bilakatu den funtzionario-anabasaren desagertzea, kudeatze-lanetan inplikazio enpresariala, ikasleekiko dedikazio zorrotza, «ekoizpen» didaktiko-intelektualaren sistematizazioa eta kontrola, atzerriko hizkuntzen exigentzia...

Bestalde, didaktikak eta metodologiak ere berriztatu behar harko ditu irakasleak, lehengo maisu-saio eta klase magistralen ordeztu, ikaslearen parte-hartze zuzena eta aktiboa bilatzen baitu Bolognak, mintegiak bultzatuz, laborategiak eta praktikak indartuz, etab.

Pentsatzekoa da informatika eta teknologia berrien erabileran ere aurrerapauso nabarmena erakutsi beharko duela irakasleriak, bai dozentzia unean, bai ikertzeko orduan.

Bolognak, dena den, beren errotarantz bideratuko ditu urak, eta horretarako orain artekoa ez bezalako malgutasuna eskatuko dio irakasleari, bai gerrian eta bai buruan.

Irakasleen «espezializazioa» eta segmentazio berria²⁴, esaterako, ubideratze horren ondorio argia —predikzioen hutsa!— izan daiteke. Eta ez gara ari enpresen finantziazio-presioen eraginez etorriko diren ikerkuntza-bideraketaz eta espezializatzeko-premiez bakarrik. Erraz asko gerta liteke unibertsitate, fakultate eta sailtako ziklo prestigiatuak suertatuko diren Master eta Doktoradutzako irakaslea ez izatea Graduko bezalakoa, batez ere zientzi prestakuntzari, estatusari eta aurrekontuen erabilerari dagokienez. Prestigioaren araberrako bipolarizazio horrek, jakina, lehen eta bigarren mailako irakasleak ekar litzake efektu guztietarako.

Baina, edonola ere, bestelakoa da Bolognak irakasleei eta unibertsitateko kide guztiei ekar diezaiekeen kalte latzena. Izatez, gertagarri da, une batean saihestezin dirudien errealtatea betierekotzat hartzeko dugun gaitasunaz baliatuta, Bologna perspektiba deskontestualizatu batetik ikusten hastea eta, ondorioz, plano guztiak nahasirik, bigarren-hirugarren mailako direnak (ikerketa-ikasketetarako metodologia eta pedagogia berriak, izaera praktikoa...) beste guztiak esaltzeko erabiltzea, Bolognako benetako eragileak, motibazioak eta interesak erakusten dituztenak ahaztuz edota haien aurrean ez ikusiarena eginez.

8. Inork irudikatu duen bezala, oraindik Erroma eta Grezia zaporeko uretan zebilen ontziari Erasmorena ez den Rotterdameko merkatal porturantzeko norabidea ezarri zaio Bolognarekin, horrek izango dituen ondorio guztiekin, itsasontziaren merkantzia-ontzi bilakatzearena barne.

Bertan doazenek intentsiboki jardun beharko dute lehen-go lanak eta eginkizun berriak atera ahal izateko, besteak

beste, lehengoa bezain barea ez den itsaso zakarrean nabigatzeko formak egokitzen eta portu berrira eraman beharko dituztenak beste era batez moldatzen. Jakina, plazerezko kruzero batean joango balira bezalako prezioak ordaindu beharko dituzte enbarkatzen diren ikasleek.

Izan ere, aski argi geratu da Bolognak hezkuntzan planteatzen duena ez dela ohiko erreforma bat, erreforma arrunta. Are gutxiago da, alde onak baino ikusi nahi izan ez dizkion sektoreen batek uste duen egokitzapen metodologiko hutsa. Aldakuntza estrukturala da Bolognak dakarrena, xedeei daragienaz gain, Hezkuntzaren kontzepzioaren sus-traiei ere eragiten diena²⁵.

Funtsean, ikerkuntza, irakaskuntza, tituluak, karrerak, iraupenak, metodologiak, pedagogiak eta beste, merkatu-ekonomiak Unibertsitaterako ezarri xedeak lortzera bideratuak dira. Ezin, beraz, eskema horrek bereganatutako Gizarte Kontseiluak eta unibertsitarioon lana fiskalizatuko duten Kalitate Erakundeak unibertsitate-sistemaren onbidatzeko tresna neutro eta aseptiko direla pentsatzen segi.

Europan beste unibertsitate-eredu bati eman zaio hasiera. Gizartea Merkatuarekin identifikatzen duen eredia. Bokazio publikoa interes pribatuarekin nahasten duena. Zientzia teknozientziaren zerbitzupean jartzen duena. Gizakia behargin huts nahi duena.

9. Zer egin?, galde zezakeen lagun erdeinatu hark berriro ere inguruan balego.

Ez baita erraza, izan ere, unibertsitatearen aitzakiarekin ekonomi planteamendu net garbiei erantzuten dieten erabaki politiko estraunibertsitarioen aurrean nola joka daitekeen erabakitzea. Ez baita erraza Bolognako Planaren ezarpen prozesu hertsi, hermetiko eta inolako eztabaidarik ahalbidetu ez duen honen aurrean kritikoki eta aktiboki posizionatzea. Ez baita erraza ustezko aukeren mozorropean eta berrikuntza pedagogiko-teknologikoekin transatlantikoaren

egiazko norabide merkantilista ostendu nahi duen Planari iparrorratz berria jartzea.

Nola jokatu, ezkerrik konprometituena ere, bere erabateko desorientazio kronikoan, neoliberalismoaren azken ekoizpen erraldoi hau aldaketarako eta unibertsitatea hobetzeko abagunetzat ikusi nahi izan duenean?

Zer egin, beraz, urte batzuk iragan arte egikaritze erreala-
ren letagin zorrotzak erakutsiko ez dituen ardi-larruzko honen aurrean?

Artzainen predikzio-zuhurtasunak dio horrelakoei artal-
dera hurbildu aitzin eman behar zaiela muturretan. Inoren txakurrekin, berriz, bestelakoa ohi da jokabidea: beldurgarriak iruditu arren, haginka egin dezaten arte itxaron behar izaten da defendatzen hasteko.

Ez dirudi asko izan direnik dilema hori ulertu edo onartu dutenak. Ez, behinik behin, unibertsitate-arduradunen artean.

Horrexegatik, hain zuzen, da interesgarriagoa ildo horretan Carlos Berzosa errektoreak²⁶ «Sí a Bolonia, pero no así» artikuluan kaleratu duen printzipio-aitorpena. Predikziotzat ere har litekeen «arrisku» zerrenda baten aurrean, Berzosak «ez nago prest» aldarrikatu du ozenki²⁷.

Guztiarekin ere, esan ez duena da ez dela Complutenseko errektore izango berak finkatzen lagunduko ez omen duen hori guztia unibertsitatean erabat gauzaturik gera dadinean. Ez eta bitartean zer egingo duen ere hain «erreal» etsi dituen «arrisku» horiek burutu ez daitezzen²⁸. Izatez, arras saihestezin dirudi Europako estatu guztiek abian jartzea erabaki duten Plan honen gauzatzeak eta —berriro predikziogile bihurtuz— guztiz ezinezko Berzosaren ustez unibertsitateak izan beharko lukeen toki lilugarriak:

un lugar donde además de preparar buenos profesionales se genere y se transmita el conocimiento, un espacio de reflexión y pensamiento, de debate y de crítica, y sobre todo un lugar de investigación y de discusión acerca de los problemas y desafíos que atenazan a la humanidad, que son muchos (*idem*).

Humanisten gogoko adierazpena izan arren, unibertsitatea bideratuko duen ekonomia-eta enpresa-munduak nekez inbertituko luke horretan horretarako.

Zer egin, bada, Bolognako Planaren berehalako ezarpenaren aurrean (2010)? Erakunde erabakitzaileen inolako inplikaziorik izango ez duten eztabaida hutsaletan aritu? Aukerak anitzak direla sinetsi eta kolaboratu? Egituraren aldaketa barnetik planteatu? Han-hemenka adabakiak jartzeari ekin? Pistoi utopikoa jaitsi eta zaintza bereziak antolatu, urtez urteko tasen igoerak KPI delakoa baino askoz altuagoak izan ez daitezten? Litaniak eta intzirika jardun izaera publikoa gal ez dezan? Euskal paradisuaren etorreraren zain itxaropentsuki segi?

Bidenabar, ez ote zuen Platonek gastritisa sendatzeko erremediorik utzi?¶

*. *Jakin* aldizkariaren aurreko zenbakian (168, 2008ko iraila-urria) aztertutako gai monografikoa Bolognako prozesua izan zen, baina honako artikulua ez da zenbaki horretako ezein artikuluri egindako erantzuna. Izan ere, artikulua ere zenbaki horretan agertutako aldian beretsuan idatzia izan da.

1. Berriki sortua den Ministerio de Ciencia e Innovación delakoaren web ofizialean (http://web.micinn.es/contenido.asp?menu1=3&menu2=3&menu3=&dir=04_Universidades/022EdUnSu/032EEES/04@SpE/00-Dtos) beste era batez adierazten da hori: «La integración del sistema universitario español en el Espacio Europeo de Educación Superior requiere de propuestas concretas que desarrollen los *distintos elementos conceptuales definidos en las declaraciones europeas*» (gurea da letrakera etzana).
2. Ez dira multzo honetan sartzen Bolognako instrukzio-liburua itsu-itsuan irakurtzen aritu direnak, ez eta, zurigarri gisa edo, Plana hala edo hola «saltzen» eta ezartzen saiatu diren kudeatzaileak ere. Balorazio kritikoa, edonola ere, ez da anitzegia izan, baina bai klase eta kolore ugariak, eta irakurle interesatuak edozein webgunetan aurkitu ahal izango du.
3. Oinarritzko dokumentazioa, ondoko helbidean: http://web.micinn.es/contenido.asp?menu1=3&menu2=3&menu3=&dir=04_Universidades/022EdUnSu/032EEES/01@Bologna/01-DBasic.
4. Historia «ofiziala» honako helbide honetan aurki daiteke: http://web.micinn.es/contenido.asp?menu1=3&menu2=3&menu3=&dir=04_Universidades/022EdUnSu/032EEES/01@Bologna/00-DHist.

5. Lehen zikloak *Graduko* titulua eskainiko luke eta *Masterra* bigarrenak. *Gradua* delakoak orokor eta generalista izatetik urrunago joango ez den prestakuntza eskainiko bide dio ikasleari (lan-merkatutarako egungo Lan Heziketaren pareko balioarekin, baina urtebete gehiagoko iraupena eta kostea izanik). *Masterrek*, berriz, ikaslearen espezializazioa ekarriko omen dute. Esan gabe doa masterrak direla unibertsitateen prestigioa eta nortasuna markatuko dituztenak; haietan xahutuko dira aurrekontu eta ahaleginen kopuru handienak. Horren erakusgarri, unibertsitate gehienetan —EHU-UPV barne— graduondoko ikasketak izan dira lehendabizi diseinatu direnak.
6. Hirurogeita bost orduko lan-asteak sustatuko du hori gero. Eta mugikor-tasun europarrak merke bihurtuko.
7. Izenez unibertsitate, zeren ez baita falta Bolognaren eraginez egokitu «sistema» horri unibertsitatei tradizionalki esleitu izan zaien izaera atzema-ten ez dionik, ohiko institutuen eta lanbide-eskolen arteko hibridazio-heziketa sumatzen baitute bertan, batik bat titulazio-sistema berriko lehen zikloari dagokionean.
8. Ordu-kopuru bolognar horien kalkulua master eta ikastaro egokitueta gauzaten da dagoeneko. ECTS sistemako kreditu bakoitzaren balioa 25 ordukoa da: 10 ordu klaserako eta 15 ordu lan desberdinetarako. Beraz, 60 kredituko ikasturteak 600 ordu klase izango ditu (60 kr. x 10 ordu kredituko) eta 900 ordu lan pertsonalerako (60 kr. x 15 ordu kredituko); orotara, 1.500 ordu. Hogeita hamar astetan, jai-egunik edo iganderik bat ere gabe, eguneko zazpi ordu luze ateratzen zaizkio ikasleari kurtsoa gainditu ahal izateko.
9. Predikzioak predikzio, denbora-kontua (zentzu guztietan) baino ez dirudite unibertsitateetan tradizionalki egon izan diren askatasuna, disentsio-espiritua eta jarduera emankor oro (kulturalak, elkartasunekoak, etab.) ahaztuen gordailuan uztearenak eta, era berean, jarduera akademikoetan (berdin klase, mintegi, bilera zein hitzaldi) kontrola ohiko bihurtzearenak.
10. Kalitate-parametroen arazoa, «arrazoizko» ez diren suspentsio-kopuruak jar litzakeen irakaslearen penalizazioa, etab. bigarren mailako predikzioen atalerako utz litezke.
11. Ezin da ahaztu *Gradua* lortu ahal izateko praktikek izango duten presentzia handia. Hirurogei kreditukoa izan liteke karrera batzuetako praktiken balioa. Praktika horiek, definizioz, ordaindu gabeak ohi dira eta, maiz asko, lanpostu arruntak betetzeko erabiliak.
12. Matrikularen prezioaz gainera, ohikoa da etxetik at bizi behar izatea, horrek ekonomia xumeei dakarkien gastu-desorekarekin.
13. Hain zuzen ere, karrera ondokoa izan ohi baita «graduatu» egonkortasun afektiboan pentsatzen hasten deneko garaia, horrek dakarrenarekin: gurasoenetik at dagoen teilape berri batean sartu ahal izateko alokairuak, euriborraren ordainketa puntuala eskatuko duen hipoteka-kreditua, etab.
13. Gainera datorkigun egokitzapen horren iragarki moduko bat UPV-EHUK antolatzen dituen masterren eta *titulu propioen* prezioetan atzeman daiteke (ikus gure «Bologna bidean», 2007.06.22ko *Garan* zein 2007.06.26ko *Berrian*).

15. Beken politikak ere berebiziko laguntza eskainiko bide du trantsizioa gogorregia gerta ez dadin.
16. *El País*, 2008.06.07. Ezin jakin, «en el campo científico» esan zuen arren —hitzak eta kontzeptuak monopolizatzen daramaten inertzia inkontzientegatik, nonbait—, «en el campo tecnológico y de las ciencias aplicadas» esan nahi izango ote zuen ministro donostiarrak, zientzi arloan —berak besterik demostratu bitartean, bederen— humanitateek ez baitute huts gehiegirik egiten.
17. Esana bihoa Espainiako gobernuak Bologna Planaren ezarpenerako kostea zerotik hurbil planteatua zuela.
18. Ez da hau kategorია horiekin loturik doan *privatizazioa-merkantilizazioa* eztabaidan sartzeko tokirik aproposena.
19. Nahi beste eufemismoz baliatuta ere, nabarmen baino nabarmenago geratu da finantziazio-iturriak «emaitzarik hoberenak» eskaintzen dituzten arloetan bilduko direla, beste guztietan oihaneko legearekin jokatu beharko dutelarik gose-asetzea (eta iraupena).
20. Alferrrikakoa litzateke galdetzea ea zoriari egotzi dakiokkeen Ministerio de Ciencia e Innovación delakoan izendatu den lehen ministro titularra CEOEko zuzendaritzatik igarotako enpresaria izatea. Garmendiak berak zuzendaritza horri esana da demokraziaren historian lehen aldiz gertatzen dela ikerkuntza, teknologi garapena eta enpresa-berrikuntza bateraturik agertzea ministerio bakar baten barnean (2008.05.13).
21. Esanguratsua da oso Universidad Nacional de Educación a Distancia-UNEDeko Gizarte-Kontseiluaren kasua, izan ere, Telefónica enpresa multinazional buru den César Alierta Izuel baita Kontseiluburua eta Telefónica Fundazioko lehendakariorde exekutiboa den Javier Nadal Gizarte-Kontseiluko Idazkari Nagusia. Bestalde, iragan uztailean aurkeztu ziren kontseilukide berrien jatorriak ere ezin argiago erakusten du hamazortzi kidez osatutako Gizarte-Kontseiluaren jaidura bolognarra: Oscar Fanjul («fue Presidente Fundador de Repsol [...] y es, en la actualidad, Vicepresidente de Omega Capital. Es Vicepresidente del Consejo de Administración de Lafarge y también miembro de los Consejos de la London Stock Exchange, Marsh & McLennan Companies, Acerinox y Areva. También es Trustee del International Accounting Standards Committee Foundation (IASC Foundation)») (http://portal.uned.es/portal/page?_pageid=93,644264&_dad=portal&_schema=PORTAL&id_noticia=871), Laura González-Molero (alemaniar multinazional kimiko-farmazeutikoa den Grupo Merck-eko lehendakaria eta kontseilaria Espainian), Rafael Catalá (Grupo Codere-ko idazkari nagusia eta haren Administrazio Kontseiluko idazkaria; Codere Taldea joko pribatuaren sektoreko multinazional espainiarra da: kasinoak, bingoak, apustuak, hipodromoak...) eta Julián García Valverde (Imathia Global izenekoaren lehendakaria). Enpresa pribatuaren presentzia eskergaz ohartarazteko azpimarratzen dugu datua, zeren eta Conferencia General de Política Universitaria delakoaren ordezkari gisa doazen azken lau pertsona hauek ez baitute zerikusirik CEOEek eta CEPYMEk Kontseiluan dituzten beste hiru ordezkariekin. Izurra izurtuz,

- gogora bedi ezen lagun horiek ordeztzen duten Conferencia General de Política Universitaria delakoa «es el órgano de concertación, coordinación y cooperación de la política general universitaria al que le corresponden las funciones de [besteren artean] establecer y valorar las líneas generales de política universitaria, su articulación en el espacio europeo de educación superior y su interrelación con las políticas de investigación científica y tecnológica» (ikus abenduaren 21eko 6/2001 Unibertsitate-lege Organikoa, IV Titulua, 27 bis artikulua).
22. UPV-EHUK badu jadanik master bat «Periodismo Multimedia El Correo-UPV/EHU» izenekoa, besteak beste BBVA-k, BBKk eta Fundación Carolinak kudeatua. Bidenabar, UPVk duen garestiena: 60 kredituko ikastaroa, 5.400 euro.
 23. Igaro berri den ikasturterako UPV-EHU delakoak eskaini zituen 42 masterren artean (2.900 kreditu inguru) bi (2) baino ez ziren euskara hutsez eskaini (180 kreditu). Ikastaro-kopurua areagotu arren, joera ez da aldatu 08-09 ikasturterako iragarrita dauden ikastaroetan. (Datu gehiagorako, ikus gure «Bologna bidean», 2007.06.22ko *Garan* zein 2007.06.26ko *Berrian*.) Anekdotikoa bezain esanguratsua, halaber, UPV-EHUREN makinariak ageri-agerian utzi du Sistemaren hizkuntz jaidura aurtengo Udako Ikastaroetan euskaraz eskaintzen ziren hiru ikastaroetako bat (pare bat?) bertan behera utzi duenean. Hamabost egun lehenago hamazortzi (18!) ikaslek baino ez zutela izena emanda izan da argudiatu den burokrazi arrazoia. Denetara, laurogei bat izan dira ofizialki eskaintzen ziren ikastaroak, gehienak gaztelaniaz. Nabarmenkiro (Euskal Herriko Unibertsitateaz izateaz gainera, Euskal Herrian gauzatu du egitaraua), euskarazkoena baino altuagoa izan da ingelesez burutu diren jardueren kopurua ere (hiru ikastaro eta kongresu bi).
 24. Estruktralak izanik, ez dira hemen aipatuko kultura neoliberaletik gero eta indar biziagoz zabaltzen ari diren ereduak eta unibertsitateko mikrokliman fauna propio bihurtzen direnak (fagozitoak, landare igokariak, onddo parasitarioak, petunia bakartiak...).
 25. Aldaketaren ideia xume bat egiteko aski da Espainiako gobernua unibertsitatearentzat sortu berri duen ministerioaren garrantziaz ohartzea eta, aldi berean, haren izenari erreparatzea, dagoeneko ez baita «de Educación y Ciencia», baizik eta «de Ciencia e Innovación». Eta unibertsitatei aplikatu nahi zaien filosofi norabide berriaz ohartzeko nahiko argia ez balitz Ministerioaren izena, ikus Zientzia eta Berrikuntzarako ministro donostiarrak haren xedeaz dioena: «*El objetivo es crear un ministerio capaz de incidir en el cambio del patrón del crecimiento económico*» (*El País*, 2008.06.07; gurea da letrakera etzana). Edo, beste modu batez adierazita, merkatu ekonomiaren ideologia ideia eta pentsamenduaren lantegian arras finkatua uztea da xedea.
 26. Bolognaren inguruko eztabaidari heltzeko ausardia izan duen errektore honek, besteak beste, iragan apirilean mila ikasle-irakasle inguruko asanblada luze batean hartu zuen parte. Ministerioko Agindu bat inpugnatu zuen Klaustro berezi bat antolatzeko konpromisoa ere hartu zuen bertan.

27. «No estoy dispuesto a contribuir a la privatización y mercantilización de la universidad pública, ni a degradar los títulos universitarios, ni a supe-
ditar el conocimiento al interés exclusivo del mercado. Tampoco a con-
vertir la Universidad en una escuela de formación profesional en la que
predominen con exclusividad las enseñanzas basadas en las capacidades
y habilidades, y a que deje de ser lo que debe ser» (*El País*, 2008.06.13).
28. Egia da haren unibertsitateak Irakaslegoaren Formakuntza Masterra
arautzen duen Ministerio Aginduaren gabetzea eskatu duela. Baina inork
egin izan ez balu (eta berdin Aginduaren gabetzea lortuko ez balitz), aur-
kituko ginateke ez bakarrik bigarren hezkuntzako irakasle izateko presta-
kuntza psikopedagogikoaren zama desorekatuaren aurrean (betiere, gai-
nera, irakaskuntzari zuzendutako master batean irakasleek nork bere
zientzi esparruan lortu beharko luketen prestakuntza teoriko-praktikoa-
ren kaltetan), baizik eta, aldi berean, hainbat eta hainbat graduondoko eta
masterren eliminazio praktikoen aurrean ere.